

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Komunitateko gizarte-langintzaren oinarri teorikoak

**Ainhoa Berasaluze Correa
Irantzu Mendia Azkue
Edurne Aranguren Vigo**

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNeko ERREKTOREORDEtzAREN
SARE ARGITALPENA**

Liburu honek UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

EDUKIA

AURKEZPENA	4
1. KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN KARAKTERIZAZIOA ETA XEDEA	6
Sarrera	6
1.1. Komunitatea	7
1.1.1. <i>Komunitate</i> kontzeptua	7
1.1.2. Komunitatearen elementu estrukturalak	9
1.1.3. Kritikak eta kontzeptu alternatiboak	11
1.2. Komunitateko gizarte-langintzaren karakterizazioa	13
1.2.1. Definizioa	13
1.2.2. Helburuak	14
1.2.3. Printzipioak	14
1.2.4. Ezaugarriak	14
1.2.5. Gizarte-langilearen profila	15
1.3. Komunitateko gizarte-langintzaren xedea	16
1.3.1. Komunitatearen barneko arazoak	16
1.3.2. Gizarte aldaketa	17
1.3.3. Beharren eta baliabideen arteko zubia	18
2. KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN IKUSPEGI HISTORIKOA	20
Sarrera	20
2.1. Ekarpn praktiko aitzindariak	22
2.1.1. Herri kooperatiboak	22
2.1.2. COSen barneko eztabaidak	23
2.1.3. Establezimenduen mugimendua	24
2.1.4. Komunitatearen ongizaterako kontseiluak	24
2.1.5. Komunitateko kutzak	25
2.2. Ekarpn teoriko aitzindariak	25
2.2.1. Komunitatearen antolaketa	26
2.2.2. Komunitatearen garapena	27
2.2.3. Birkontzeptualizazio-mugimendua	28
2.3. Komunitateko gizarte-langintza Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian	29
2.3.1. Espainiako Estatua	29
2.3.2. Euskal Herria	35
2.4. Komunitateko gizarte-langintzaren lege-oinarriak	38
3. KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN EREDU TEORIKOAK	43
Sarrera	43
3.1. Teoria soziologikoen eragina gizarte-langintzan	44
3.1.1. Funtzionalismoa	44

3.1.2. Gatazkaren teoria	45
3.1.3. Hermeneutika	46
3.2. Oinarrizko eredu teorikoak	46
3.2.1. Eredu tradizionalak	46
3.2.2. Jack Rothman-en sistematizazioa	47
3.2.3. Alan Twelvetress-en tipologia	50
4. GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA	53
<hr/>	
Sarrera	53
4.1. Parte-hartzea	54
4.1.1. Gizarte zibila eta horren parte-hartzea gizarte bizitzan	54
4.1.2. Parte-hartze demokratikoa	56
4.1.3. Gizartearen parte-hartzea eta gizarte-langintza	58
4.2. Elkartegintza eta boluntariotza	59
4.2.1. <i>Elkarte</i> kontzeptua	59
4.2.2. Egungo elkarten ezaugarri nagusiak	61
4.2.3. Elkarten eta administrazio publikoen arteko harremana	62
4.2.4. Boluntariotza eta ekimen solidarioa	64
4.2.5. Boluntariotza eta gizarte-langintza	65
4.3. Gizarte-mugimenduak	67
4.3.1. Mugimendu feminista	68
4.3.2. Mugimendu ekologista	70
4.3.3. Langile-mugimendua	71
4.3.4. Mugimendu indigena	73
4.3.5. Nekazari-mugimendua	73
4.3.6. Bakearen aldeko eta militarismoaren kontrako mugimendua	74
5. KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN EGUNGO ERRONKAK	76
<hr/>	
Sarrera	76
5.1. Arestiko gizarte-bilakaera historikoa	77
5.1.1. Globalizazioa	77
5.1.2. Pribatizazioa	78
5.2. Komunitate gizarte-langintzaren egungo erronkak	80
5.2.1. Esku-hartze komunitarioaren baldintzak: ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak	81
5.2.2. Esku-hartze komunitarioaren oztopoak	83
5.3. Amaierako hausnarketa	87
BIBLIOGRAFIA	89
<hr/>	

AURKEZPENA

Komunitateko gizarte-langintza (KGL) ez da atzo goizeko gaia, ezta praktika ere; izan ere, gizarte-langintzaren aitzindarien pentsamenduan eta obran ere ageri zen. KGLren ildoan zihoazen lehen esperientziek eta horiei buruz eginiko lehen hausnarketek irizpide argi bati jarraitzen zioten: pertsona, testuinguru zehatz batean kokatu beharra dago, haren egoera hobeto ulertzeko eta, beraz, hari eskainitako laguntza benetan egokia izan dadin.

Aurreko irizpidea kontuan izateak hainbat inplikazio garrantzitsu ekarri ditu. Alde batetik, esku-hartze sozialaren inguruan, gizarte-langintzan erabili den eskema tradizionalan, hiru maila identifikatu badira ere —banakakoa, taldea, komunitatea—, pertsonaren eta haren ingurunearen arteko uztarketak direla eta, onartu behar dugu hiru esku-hartze maila horien arteko erlazioak ezinbestekoak direla.

Bestalde, komunitatearen ikuspegitik lan egiteak ahalbidetu nahi du eredu asistentzialista gainditzea eta horren ordez eredu parte-hartzaile bat proposatzea, zeina herritarren erantzukizunean eta inplikazioan oinarritzen baita —hau da, mobilizazioaren bidezko ongizatearen bilaketan—. Horrela, esan daiteke komunitateko gizarte-langintza, esku-hartze sozialaren eremu bat baino gehiago, esku-hartze estilo edo mota bat dela, ikuspegi zehatz baten aplikazioan oinarrituta dagoena.

Komunitateko gizarte-langintzari ez zaio arreta handirik egin gizarte-langintzaren bilakaera historikoan zehar; gizarte-langintzaren xedea lortzeko banakako esku-hartzeak bereganatu ditu ahalegin gehienak. Alabaina, azken urteotan, komunitate-mailaren garrantzia eta eraginkortasuna aintzat hartzen ari da. Hala adierazten dute, adibidez, gizarte-langintzan adituak diren zenbait autorek.

María José Escartín-en arabera, KGL da gizarte-langintzaren egungo erronka, esku-hartze maila hori baita parte-hartzea, elkartasuna, bizikidetasuna eta antzeko balioak susper eta gara ditzakeena: norberaren eta ingurunearen

egoeraz jabetzen lagunduz, norbanakoaren eta komunitatearen gaitasunak bultzatuz, eta gizarte-trebetasunak eskuratzen erakutsiz.

Cristina De Robertis-en ustez, aldiz, KGLren garrantzia zerean datza: taldeen bitartez komunitate-mailan parte hartuz, pertsonak beren herritar-rola bete dezakete, eta bizitza publikoan parte har, erabakietan eragina izan, beren eskubideak eta iritziak babes, eta abar.

Azkenik, Natividad de la Red-en ustetan, KGLren berragertzea azken hamarkadetan jasandako krisialdi ekonomikoarekin loturik dago. Krisialdi ekonomikoak, ondorio ekonomikoez gainera, ondorio sozialak ere izan ditu, batez ere identitate sozialarekin loturikoak. Gizarte-mugimenduen bitartez identitate-krisi horri amaiera eman nahi zaio, lurraldearekiko lotura eta erlazioa indartuz, interes komunak definituz, eta identitate sozialaren eta kulturalaren kontzientzia lortuz.

1. KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN KARAKTERIZAZIOA ETA XEDEA

Sarrera

Esan bezala, komunitateko gizarte-langintza gizarte-langintzaren esku-hartze mailetariko bat da, banakakoa eta taldekakoarekin batera. Komunitatean lan egiteak behartzen gaitu banakako eta taldekako mailak kontuan izatera; izan ere, komunitateak taldeak ditu bere barnean, eta horiek pertsonaz osaturik daude. Beraz, pertsona guztiek komunitateko dimentsioa daukate eta, era berean, komunitateek banakako dimentsioa. Bien arteko harremana dialektikoa da, elkarri eragiten baitiote. Taldekako maila aurreko bien artean kokatzen da, eta komunitateko maila eratzeko ezinbestekoa dugu.

Komunitatean esku hartzea planteatzen dugunean, argi dago ezinezkoa dela abstraktuan egitea. Esan bezala, komunitatea pertsona taldez osaturik dago, eta horien artean harremanak, interesak eta loturak dituzte. Pertsona talde horien bitartez komunitateko gizarte-langintza garatzen da.

Historikoki, gizarte-langintzan, banakako eta komunitateko mailak edo dimentsioak aurrez aurre jarri dira. Ordea, kontrajartze hori ez dator errealitatearekin bat, ezta gizarte-langileen eguneroko lanarekin ere. Maila bakoitzak berezko esku-hartze metodologikoa eta estrategikoa du, baina hortik ezin da ondorioztatu kontrakoak direnik, biak errealitate sozial berberaren alde bat baitira. Banakako mailan erabiltzailearen dimentsio indibiduala eta familiarra dira nagusi; komunitateko mailan, aldiz, erabiltzailearen dimentsio nagusiak hauek dira: taldekoak, auzokoak, espazio geografikokoak eta instituzioetakoak.

Beraz, banakako esku-hartzean komunitateko maila izan beharko da kontuan, eta esku-hartze komunitarioan, aldiz, banakako maila. Pertsonak gizartearen, instituzioen, tokiko errealitatearen, taldeen, harremanen eta familiaren eragina jasaten du. Aldi berean, pertsonak aipaturiko elementuetan eragina du, nahiz eta neurri txikiagoan izan, noski.

1.1. Komunitatea

1.1.1. *Komunitate* kontzeptua

Etimologikoki, komunitatearen kontzeptua latinezko *communis* hitzetik dator, *komun* terminoarekin identifikatzen dena eta beste hainbat hitzen erroarekin ere erlazionatuta dagoena: *komuna*, *komunismo* edo *komunikatu*. Lehen hurbilketa terminologiko batean, beraz, esan dezakegu *komunitate* kontzeptuak adierazten duela errealitate bat, non pertsonak elkarrekin bizi baitira, espazio komun batean eta zerbait partekatzen.

Ezbairik gabe, kontzeptu honek askotariko edukiak jaso ditzake, hurbilpen-bidearen arabera: historikoa, antropologikoa, soziologikoa, erlijiosoa, etikoa, politikoa, ekonomikoa, ideologikoa edo kulturala. Beraz, komunitatearen esanahiak ugariak izan daitezke. Kontzeptuaren garapenean zientzia bakoitzak bere erabilera eta zentzua eman dizkio. Hori dela eta, ikuspegi guztiak izan behar dira kontuan, *komunitate* kontzeptuaren analisian.

a) Ikuspegi soziologikoa: komunitateaz hitz egitean intimitate pertsonala, sakontasun emozionala, konpromiso soziala eta denbora-jarraipena ezaugarritzat dituzten erlazio mota guztiez ari gara. Soziologiak *gizarte* eta *komunitate* kontzeptuak bereizten ditu:

- Komunitatea: erakundeak edo elkarteak ditu oinarri, elkarri eragiten diotenak eta elkarlanean aritzen direnak osotasunarentzat onuragarriak diren ekintzak gauzatzeko. Bertan, pertsonak komunitate horren partaidetzat hartzen du bere burua.
- Gizartea: norberaren interesa eta kalkulua dira haren oinarriak, eta pertsonen artean harreman artifizialak sortzen ditu. Ekintzak isolaturik gertatzen dira. Hiria da gizartearen egoitza eta bertan erlazioak interes arrazionaletan oinarritzen dira.

b) Ikuspegi psikologikoa: komunitatea giza harremanetarako sare bat da. Zientzia horrek giza harremanen alderdi psikikoei ematen die garrantzia, eta, horren arabera, komunitatea kolektibitate bat da, non gizarte-kohesioa sortzen baita eta pertsonak bere giza harreman guztiak gara baititzake. Kokapena (beti lurralde edo espazio bat okupatzen du) eta komunitate-sentimendua (elkartasuna eta interes komunak) ditu oinarri.

c) Gizarte-langintzaren ikuspegia: komunitatearen kontzeptualizazioan bi autorek, Marco Marchioni-k eta Ezequiel Ander-Egg-ek, berebiziko eragina izan dute.

Marco Marchioniren iritzian, komunitatea lurralde berean bizi diren eta hainbat lotura eta interes komun dituzten pertsonen multzoa da, lau elementuok osaturikoa: lurraldeak, biztanleriak, eskariak eta baliabideek. Oinarrizko lau elementu horien azterketatik planteatzen ditu komunitatearen ikerketa, antolakuntza eta garapenerako estrategia (Marchioni, 1987: 69-70).

Ander-Eggen esanetan, komunitatea “gizarte unitate gisa hautematen diren antolatutako pertsonen elkarte da, non kideek ezagurri, interes, elementu, helburu edo funtzio komunen bat baitute, kidetasun-kontzientzia duena eta eremu geografiko jakin batean kokatuta dagoena; halakoetan, pertsonen pluraltasunak interakzio intentsoagoa du beste edozein ingurutan baino” (Ander-Egg, 1985: 45). Azken definizio hori zabala izanik, azpimarratzekoa da *kide izatearen kontzientzia* ideia garrantzitsua. Kidetasun-sentimendua komunitatearen ezaugarrien artean legoke, bi zentzutan: sentimendu hori ez litzateke soilik ezaugarri pertsonala edo subjektiboa; aitzitik, komunitatetik at daudenek ere komunitateko kideak halakotzat hartzen dituzte.

Orain artean esandako guztia kontuan izanda, gizarte-langintzaren ikuspuntutik komunitateari atxikiko zaizkion esanahi nagusietariko batzuk identifika ditzakegu:

- Komunitatea gizarte-langintzaren oinarrizko tresna da, horren bitartez komunitateko gizarte-langintza garatzen den neurrian. Komunitatea

pertsonak osatzen dute, eta haiek gizarte-langintzaren subjektu bihurtzen dira.

- Komunitatea gizarte-sistema bat da, non taldeek beren artean interakzioa baitute eta elkarri lotutako gizarte-sareak osatzen baitituzte.
- Komunitatea unitate soziala da; ingurune konkretu batean kokaturik dago, eta bertako pertsonak gainerakoengandik bereizten dira, interes edo funtzioen bat komunean dutelako. Horretaz gainera, kide- edo partaide-kontzientzia dute.

Beraz, komunitatearen ezaugarriak honako hauek dira:

- leku geografiko zehatza hartzen du.
- ohiko giza harremanak gertatzen dira.
- interesak, helburuak, beharrak, arazoak, eta abar partekatzen dituzte, errealitate historiko, sozial, kultural eta ekonomiko berean murgildurik baitaude.
- erakundeak edo elkarteak daude ekintza kolektiboak aurrera ateratzeko.
- pertsonak tokiko sentimenduak eta identitateak dituzte.
- historikoa eta dinamikoa da.
- integrazio-maila handia ahalbidetzen du, nazioek, erlijioek edo klase sozialek eskain dezaketen baino handiagoa.

1.1.2. Komunitatearen elementu estrukturalak

Aipatutakoak komunitatearen ezaugarriak izanik, kontuan izango dugu, orobat, kasu guztietan komunitatea lau elementu estrukturalak osatzen dutela eta, Marco Marchioniren iritziori jarraituz, laurak izan beharko dutela aztergai esku-hartze komunitarioaren hasieran:

a) Lurraldea

Komunitatea kokaturik dagoen espazioa dugu lurraldea, pertsona multzo batek bizilekutzat duen tokia. Beraz, entitate edo errealitate fisikoa eta soziala da.

Lurraldea hedadura desberdinekoa izan daiteke: eskualdea, herria, auzoa, eta abar. Lurraldearen ezagueran kontuan izan beharko diren alderdi nagusiak hauek ditugu:

- espazio geografikoa
- hirigintza
- garraioak
- elkartokiak
- zerbitzuak

b) Biztanleria

Komunitatea osatzen duten kideak dira, eta ezaugarri orokor hauek dituzte:

- Kideen artean harremanak dituzte, hainbat motakoak izan daitezkeenak: auzokideen artekoa, langileen artekoa, aisialdian eginiko harremanak, eta abar. Harreman horiek komunitatetik kanpo dituzten beste harremanetatik bereizten dira.
- Interes eta balio komunetan sinesten dute: zerbitzu publikoen kalitatea, lanerako aukerak, etxeko futbol-taldearen garaipena, eta abar.
- Komunitateko kideak izatearen sentimendua daukate: komunitatearekin lotura afektiboa sustatzen da, eta berarekin identifikatzen dira. Gainera, kanpokoek komunitateko partaide gisa hautematen dituzte.

Ezaugarri komun horiek izateak ez du esan nahi gauza guztietan ados daudenik: ezadostasunak eta iritzi desberdinak ere agerikoak izan ohi dira.

Biztanleriaren ezagueran kontuan izan beharko diren alderdi nagusiak hauek ditugu:

- banaketa soziala, kulturala eta ekonomikoa
- ezaugarri demografikoak
- talde edo elkarteak eta haien ezaugarriak (auzo-elkarteak)
- iritzi publikoa
- historia eta garapena

c) Eskaria

Gizarte-eskaria elementu konplexua dugu, gizarte-arazoekin oso erlazionaturik baitago. Horregatik, hainbat irizpideri jarraituz azter daiteke:

- egungoa eta etorkizunekoa
- esplizitua eta inplizitua
- subjektiboa eta objektiboa
- badena eta izan daitekeena

d) Baliabideak

Komunitatea eta bertako kideak dira baliabide potentzial garrantzitsuenak. Gizarte-langilearen zeregina da baliabide potentzial horiek baliabide erreal bihurtzea. Komunitateak dauzkan baliabideak ez dira erabil daitezkeen baliabide bakarrak, lehendabizi erabili beharrekoak baizik. Baliabideen ezagueran kontuan izan beharko diren alderdi nagusiak hauek ditugu:

- eskurako baliabideak (zuzenean erabil daitezkeenak)
- baliabide potentzialak (komunitatean egon daitezkeenak)
- baliabide publikoak
- baliabide pribatuak
- borondatezko baliabideak

1.1.3. Kritikak eta kontzeptu alternatiboak

Komunitate kontzeptua kritika ugari jasaten ari da, batez ere kontzeptuaren ezgaitasun operatiboa dela eta. Malagón-ek (1992), adibidez, dio kontzeptu horren bitartez ezin dela gaur egungo errealitate soziala aztertu, horrek elementu espezifikoak dituelako (modernitatea, arrazionaltasuna eta aurrerapena) eta *komunitateak* ez dituelako horiek bere baitan jasotzen. Ezgaitasun horren ondorioz, *komunitate* kontzeptua krisian legoke, eta beste kontzeptu alternatibo batzuk proposatu izan dira esku-hartze komunitarioa ahalbidetzeko:

a) Taldea edo kolektiboa

Komunitatean esku hartzea planteatzen dugunean, argi dago ezinezkoa dela abstraktuan egitea. Izan ere, komunitatea pertsona taldez osaturik dago, eta beren artean harremanak, interesak eta loturak dituzte. *Taldea* zerbait partekatzen duen pertsona multzoa litzateke. Pertsonaren eta komunitatearen artean dago taldea: pertsonari dimentsio soziala gauzatzeko aukera ematen dio, eta komunitateari, aldiz, adierazpidea. Ildo horretatik, Cristina de Robertis-en eta Henri Pascal-en (1994) arabera, egokiago litzateke *gizarte-langintza kolektiboaz* aritzea.

Gizarte-langintzaren ikuspegitik, hiru talde mota nagusi daude:

- Adierazpen-taldeak: talde barneko gaiak lantzen dira, helburua kideei laguntza ematea izanik. Terapia-taldeak, adibidez.
- Elkarren arteko laguntza-taldeak: pertsona talde batek proiektu bat garatzea erabakitzen duenean, autolaguntza bultzatzeko. Kasu honetan baliabide propioak erabiliko dira. Adibidez: aisialdirako ekintzak (jaiak), gizarte-zerbitzuen ekintzak (adinduentzako elkarteak), eta abar. Beraz, pertsonak komunean daukaten arazo edo kezka bati erantzuteko elkartzen dira. Erantzunak ez dira kanpoan bilatzen, instituzioetan adibidez; aitzitik, taldeak sortzen ditu.
- Gizarte-ekintzarako taldeak: taldetik kanpo zerbait lortzea bilatzen dutenak dira. Parte-hartzea ahalbidetzen dute. Adibidez: informazio-orri bat argitaratzea. Talde horien egituratzeko tresna batzarra da, eta bertan erabakiak hartzen eta ekintzak banatzen dira.

b) Gizarte-sarea

Sarea Britainia Handiko gizarte-antropologiatik harturiko kontzeptua da. John Barnes-ek 1954an erabili zuen lehen aldiz Bremmes-eko (Norvegia) arrantzaleen komunitatearen azterketa egitean, eta geroxeago Elizabeth Bott-ek ere landuko zuen. Hitz horrekin zera adierazi nahi da: pertsonak eta familiek beren inguruarekin eratzen dituzten harremanen multzoa. Hortik dator, beraz, batzuek erabiltzea gizarte-sareen kontzeptua komunitatearen sinomino gisa.

Gizarte-langintzaren eremuan, gizarte-sarea ulertzen da elkarrekiko lotura duten pertsonen multzo gisa, nahiz eta guztiek elkar ezagutu ez. Zeharkako loturak egotea da, hain zuzen ere, sarea taldearen kontzeptutik bereizten duena. Elina Dabas-ek, gizarte-langintzaren barnean ere, *sareen sarea* kontzeptua ezarri du, zera adierazteko: gizarte-sarea sistema irekia da, non truke dinamikoa egon baitaiteke, barnean dauden kideen artean ez ezik, beste sare batzuetako kideekin ere. Beraz, ildo horretan ere uler dezakegu sareen sarea komunitateko garapen klasikoaren alternatiba gisa.

Gizarte-sareek, pertsonak beren inguruan sortzen dituzten harremanak izanik, ez dute zertan erreferentzia espaziala edo lurraldekoa izan. Giza harreman horien eragina pertsonarengan luzarokoa izaten da. Pertsona bakoitzak gizarte-sare bat baino gehiago izan ditzake. Sare kopurua handitzen den neurrian, euskarri-sarea ere handituz joango da. Garrantzitsua da bi kontzeptu horiek bereiztea: a) gizarte-sarea: pertsona batek daukan gizarte-harreman multzoa, eta b) euskarri-sarea edo laguntza-sarea: laguntza-funtzioa betetzen duen harreman azpimultzoa.

Gizarte-sarearen kontzeptuak pertsona esku-hartzearen erdigunean kokatzen du, eta pertsonarengandik abiatuz ingurunea aztertzen. Pertsona eta ingurunea osagarriak dira, eta interakzioan ari dira etengabe; horregatik, edozein esku-hartze pertsonarengan edo ingurunean soilik oinarrituz gero, porrot egingo du.

Gizarte-sarearen kontzeptua erreferentziatzat harturik, komunitateko gizarte-langintzan ildo berri bat zabaltzen da, zeinak teoria sistemikoak eta ekologikoak baititu oinarri.

1.2. Komunitateko gizarte-langintzaren karakterizazioa

1.2.1. Definizioa

María José Escartín-en arabera, KGL komunitate bateko biztanleen ongizatea lortzea helburu duen gizarte-ekintza profesionala da, non biztanleen parte-hartze zuzena eta aktiboa ezinbestekoa baita komunitateari dagozkion arazoan analisian, kontzientziazioan eta erabakietan. Beraz, komunitatea bera

abiapuntu den prozesua da, helburuak lortzeko bertako baliabideak eta gaitasunak sustatzen dituena.

1.2.2. Helburak

Walter A. Friedlander-en (1978) arabera, KGLren honako hiru helburu hauek bereiz daitezke:

1. Biztanleei ongizatea lortzeko beharrezkoak diren bitartekoak aurkitzen laguntzea.
2. Biztanleen arteko elkarlana bultzatzea.
3. Norbanakoen eta taldeen arteko interakziorako bideak zabaltzea.

1.2.3. Printzipioak

M.G. Ross-en arabera, hauek dira KGLren printzipioak:

1. Komunitate guztiak etengabe hobekuntza-prozesu batean murgildurik daude.
2. Komunitateek beren beharrei erantzuteko adina baliabide dute.
3. Pertsonak aldatu nahi dute eta aldatzeko ahalmena badaukate.
4. Komunitaterako hurbiltze globalak (kultura, ekonomia, osasuna, heziketa, eta abar) izan dezakeen arrakasta ez da hurbilketa partzialaren bitartez lortuko.
5. Demokraziak nahitaezko ditu herritarren parte-hartzea eta interakzioa.
6. Komunitateek askotan beren nahiei aurre egiteko laguntza behar izaten dute, batez ere antolakuntza-mailan.

1.2.4. Ezaugarriak

KGLren ezaugarriak, Cristina De Robertis-en (1994) arabera, honako hauek dira:

1. Esku-hartze mikrosoziala da; horregatik, esku-hartzearen tokia eta biztanleria ondo zehaztu beharra dago.

2. Izaera publikoa du; horregatik, esku-hartzearen nondik norakoa besteekin partekatu behar da, eta, hala, gizarte-langilearen boterea gutxitu.
3. Esku-hartzea epe luzerako izaten da; horregatik, planifikatu eta denbora antolatu beharra dago.

1.2.5. Gizarte-langilearen profila

Gizarte-langilearen funtzioak esku-hartze komunitarioan zehaztu aurretik, bi errealitate hartu beharko ditugu aintzakotzat: alde batetik, komunitateko gizarte-langintzak gizarte-langintzaren hiru esku-hartze mailak dituela, eta, bestetik, komunitatean gizarte-langilea ez dabilela bakarrik; aitzitik, beste profesional batzuekiko elkarlana nahitaezkoa da: irakasleak, psikologoak, medikuak, soziologoak, hezitzaileak, eta abar. Izan ere, gizarte-langileak errealitate konplexu eta dinamikoan esku hartzen du, non pertsonen, familien eta taldeen autonomia indibiduala eta soziala eragingo baitu, laguntza-harremanaren bitartez.

Komunitatearen garapen-prozesuan, gizarte-langileak laguntzaile-zeregina izango du: a) komunitatean dauden beharrak eta arazoak herritarrei ezagutarazteko; eta b) behar eta arazoei erantzuteko komunitateko baliabideak bideratzeko. Prozesu horretan, gizarte-langileak komunitatearekin batera lan egin behar du (ez komunitatearentzat), oinarritik bideraturiko lan metodologikoa baita.

Gizarte-langilea komunitateko eraldatzaile dela esan ohi da, beraren lana aldaketara bideratzen baita. Ikuspegi horretatik, komunitatearekin harreman jarraikia izan behar du, bertan dauden taldeekin batera lan eginez. Eraldatzaile-papera eraginkorra izan dadin, komunitatearen parte-hartzea eta horren erritmoaren alderako errespetua ezinbestekoak dira.

Ikuspegi orokor batetik, gizarte-langileek esku-hartze komunitarioan dituzten funtzioak era honetara laburbil daitezke:

- banakoari, taldeari edo komunitateari zuzeneko arreta ematea, zentzabidea, prebentzioa edo promozioa helburu direla.
- gizarte-zerbitzuak kudeatzea eta gizarte-langintzaren alderdi guztiak koordinatzea, ahalik eta hoberen funtziona dezaten.
- programatzea, helburuak zehazten, jomugak finkatzen, bitartekoak aukeratzen, gauzate-denbora erabakitzen, jarduera-mailak deskribatzen eta abarretan parte hartzea eta laguntzea.
- plangintzan parte hartzea, plangintzaren arduradunei, bai egitasmo nazionaletan bai tokikoetan, biztanleriaren ezaugarrien inguruko informazioa emanaz.

Ikuspegi espezifikotik, Isabel Trigueros-en planteamenduari jarraituz, hona hemen gizarte-langilearen funtzioak:

- komunitatearen gaikuntzan laguntzea, komunitatea bera izan dadin bere beharrei aurre egiten diena eta garapen-prozesuan parte hartzen duena.
- erakundeekin lan egitea, haien helburuak errealitatearen eskaeretara egokitu daitezzen.
- erabiltzaileek zerbitzuetako programazioan parte har dezaten bultzatzea.
- edozein erakunderekin elkarlanean aritzea garapen-planak egiten.
- biztanleen eta behar/baliabideen arteko bitartekari izatea.
- biztanleriari egin nahi diren planak aditzera ematea.
- biztanleriak bere beharrak eta lehentasunak adieraz ditzan erraztea.

1.3. Komunitateko gizarte-langintzaren xedea

1.3.1. Komunitatearen barneko arazoak

Tradizionalki, komunitateko gizarte-langintzarentzat, komunitatea izan da esku-hartzearen xedea. M.G. Ross (1967) izan da komunitatea esku-hartzearen xede gisa definitzen ahalegin handiena egin duena; hala ere, beste aditu batzuk ere aritu dira komunitatea xede gisa sistematizatzeko-lanean: R. Lippit, J. Watson eta B. Westley (1980) kasu. Aditu horiek komunitatean gerta daitezkeen arazoaren arrazoa edo zergatia deskribatu dute:

a) Gatazkak botere-banaketan: komunitatearen barne-antolaketan, boterearen banaketan arazoak egon daitezke, boterea oso zentralizatu edo deszentralizatu dagoelako edo modu kaltegarrian edo ez-eraginkorrean baliatzen delako. Gizarte-langileak komunitateko kideek botere-sistema egokiago bat sor dezaten lagunduko du, elementu berriak gehituz eta daudenak zuzenduz (hau da, boteregune berriak sortuz edo daudenak esanguratsuagoak izan daitezen bideratuz).

b) Komunikazio-arazoak: komunitateko azpisistemen artean komunikazio-arazoak izaten dira. Komunikazioa pertzepzioen eta esanahien adostasunaren ondorioa da. Kultura edo maila sozio-ekonomiko desberdinetako jendea elkartzen denean, pertzepzio eta esanahiak ez dira berdinak, eta horrek komunikazio-arazoak sor ditzake. Gizarte-langileak azpisistemen artean bitartekari-rola izango du, elkarren arteko komunikaziorako prestatuz eta informazioa zabalduz.

c) Etengabeko erronkak eta arazoak: komunitatea etengabeko erronkak eta arazoak jasaten dituenean, ez da gai izaten haiei erantzuteko, ezta baliabide nahikoak sortzeko ere, eta, ondorioz, zailtasunak agertzen dira. Gizarte-langilearen funtzioa datza komunitatetik kanpoko beste sistema batzuekiko harremanak hobetzean edo sendotzean, baliabide berriak lortze aldera.

d) Maila sozio-ekonomiko baxuko biztanleriaren bizi-baldintzak: biztanleriak mobilizaziorako motibazioa galtzen du, bizi-baldintza gogorretan dagoenean: ezegonkortasuna, krisialdia, frustrazioa, eta abar. Gizarte-langilearen zeregina koordinazioa bultzatzera zuzenduko da, gizarte-planifikazioaren sektore guztien arteko elkarlana erraztuz.

1.3.2. Gizarte-aldaketa

Aztertu bezala, egun, deskribaturiko ikuspegia —komunitateko gizarte-langintzaren xedea komunitatea bera izatea, hain zuzen ere— zalantzan jarri da, zeren *komunitate* kontzeptua eta horri dagozkion balioak ere krisian baitaude. Gaurko gizartean, komunitateko balioek (nagusiki elkartasunak eta

laguntzak) gero eta garrantzi txikiagoa dute, eta, aldiz, beste balio berri batzuk dira nagusi (norberekoitasuna eta lehiakortasuna, besteak beste), modernotasunaren eta aurrerapenaren oinarri direnak. Krisialdi hori dela eta, planteamendu teoriko berriak landu dira, besteak beste gizarte-langileen esku-hartzea, era batekoa edo bestelakoa izan, beti aldatzeko xedearekin egiten dela defendatzen dutenak. Xede hori (aldaketa) hainbat ikuspegitatik planteatu daitezke:

a) Ikuspegi tradizional-kontserbadorea: arazoei aurre egiteko erreforma proposatzen dute. Beraz, aldaketa erreforman datza, hau da, dagoen errealitatea hobetzean (egoeraren araberako neurriak).

b) Ikuspegi erradikala: arazoei aurre egiteko, errealitatea eraldatu behar dela defendatzen dute. Hots, dagoen errealitatea aldatu, beste berri bat sortzeko (neurri estrukturalak edo egiturazkoak).

c) Ikuspegi sistemikoa eta eredu elkarreragilea: eredu honek pertsonen eta taldeen arteko edo pertsonen eta instituzioen arteko harreman disfuntzionalak aldatu nahi ditu. Horren bitartez, komunitateak oreka dinamikoa lortzen du, hau da, borrokan dauden indarrek elkar baliogabetzen dute eta, hala, oreka lortzen. Baina egoerak dinamikoak dira, eta batzuetan, pertsonen bizitzan gertakarien poderioz (bat-batean lanetik kanporatzea, gaixotasuna, familiakide baten heriotza, haurdunaldia, eta abar), orekak apurtzen dira eta desoreka bihurtzen. Egoera desorekatu horiek berriz ere artezteko, eraldaketak nahitaezkoak dira, baina gehienetan eraldaketak aurrera eramateko eragozpenekin topo egiten dugu, pertsona ezegonkortasun eta nahasketa afektiboaren pean egoten delako. Orekaren galerak pertsona laguntza eskatzera bultzatzen du, eta gizarte-langilearen zeregina izango da erabiltzailea oreka-egoerara buelta dadin laguntzea.

1.3.3. Beharren eta baliabideen arteko zubia

Egun, planteamendu teoriko guztiak kontuan izanik, komunitateko gizarte-langintzaren xedea era honetara ere deskribatu izan da: komunitateko kideen

beharren asetzearen eta nahien ongizatearen artean sortzen den espazioa da, hau da, eskariaren eta baliabideen arteko esparrua. Espazio horretan gizarte-langileak, komunitateko kideekin batera, bere lan profesionala egiten du.

Aldaketa-prozesua, gizarte-langintzaren xede den heinean, bideratuko da behar-baliabide binomioaren arteko desorekaren ondorioz sortutako gatazkak edo arazoak gainditzeko helburua lortzera. Hala, bai pertsonentzat bai taldeentzat, bizi-kalitatea eta ongizatea handituko dira. Xedea egoera eta errealitate konkretuan sortzen da; beraz, aldakorra eta dinamikoa izango da. Xedea azaleratzeko, errealitate konkretuan murgildu beharko dugu, errealitatea osatzen duten aldagaiak ezagutzuz eta elementu eraginkor positiboak eta negatiboak kontuan hartuz.

2. KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN IKUSPEGI HISTORIKOA

Sarrera

Gaur egungo komunitateko gizarte-langintza heziketa-prozesu bikoitz baten ondorioa da. Lehenik, heziketa enpirikoa edo praktikoa, komunitateetako laguntza-esperientzia desberdinetatik jasotakoa, batez ere Ingalaterran eta AEBn errotu zirenak XIX. mendean eta XX. mende hasieran: herri kooperatiboak, karitate-erakundeak (COS), establezimenduen mugimendua (Settlement), komunitatearen ongizaterako kontseiluak eta komunitateko kutzak esperientzia nagusiak izanik. Bestalde, heziketa teoriko baten eraginpean ere garatu izan da KGL, komunitatearen antolaketa eta komunitatearen garapena eredu teoriko nagusi izanik, eta birkontzeptualizazio-mugimenduak izan duen eragina aintzat harturik. Beraz, atal honen lehen helburua zera izango da: KGLn aitzindari izan diren ekarpen edo esperientzia praktikoak eta historikoki nagusi izan diren ekarpen teorikoak aztertzea.

Bigarrenik, ikuspegi historiko batetik ere, geografikoki hurbilak ditugun ekarpenetara hurbiltzea izango dugu helburu, bai Espainiako Estatuan, bai Euskal Herrian, KGLren garapenean erabakigarriak izan direnak aukeratuz.

1. taula. Ekarpen historikoak komunitateko gizarte-langintzaren eraketan

HEZIKETA TEORIKOA		HEZIKETA ENPIRIKOA
		↓
<i>Komunitate-antolaketa</i>	<i>Komunitatearen garapena</i>	Herri kooperatiboak Robert Owen, Ingalaterra, 1817
		Karitate-erakundeak → Charity Organization Society Octavia Hill eta Edward Denison, Ingalaterra, 1860
		Establezimenduen mugimendua/ Settlement Samuel Barnett, Ingalaterra, 1884
		Komunitatearen ongizaterako aholkuak AEB, 1908
		Komunitateko kutxak AEB, 1913

Iturria: Egileek landua

2.1. Ekarpen praktiko aitzindariak

Esan bezala, egungo komunitateko gizarte-langintzan eta ekintza komunitarioan eragin handia izan duten esperientzia historiko aipagarrienak aztertuko dira, hala nola herri kooperatiboak, COSen barneko eztabaidak, establezimenduen mugimendua, komunitatearen ongizaterako aholkuak eta komunitateko kutzak. Esperientzia horiek guztiak Ingalaterran eta AEBn izandakoak dira, XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran.

2.1.1. Herri kooperatiboak

Herri kooperatiboen ekimena Robert Owen (1771-1858) sozialista utopikoari dagokio. Hark uste zuen norbanakoaren inguruak bere nortasuna baldintzatzen zuela. Beraz, ingurua pertsonaren zerbitzura jarri behar zen. Ideia horretan oinarriturik, herri kooperatiboak eraikitzen saiatu zen, kapitalista pribatuen lantegi-herriei kontra eginez. Beraz, XIX. mendeko sistema kapitalistaren ordeztu, berdintasunean eta pertsonaren promozioan oinarrituriko gizarte eredu bat ezartzea zuen helburu.

Herri kooperatiboen bitartez komunitate-sentimendua indartu, senidetasuna sortu eta eginbehar kolektiboak bultzatu nahi zituen. Balio horiek poliki-poliki zabalduz joango zirelakoan zegoen, garaiko konkurrentzia kapitalistari aurrea hartuz, hura baitzen arazoaren sustraia.

Horrela, haurrak, gazteak eta helduak hezteko “Nortasuna Lantzeko Institutua” sortu zuen. Zortziehun pertsonaz osaturiko herri kooperatibo bat zen, eta bertan Owen eta haren familia ere bizi ziren. Hala ere, ez zuen lortu herri kooperatiboak zabaltzea.

Komunitateko gizarte-langintzarako Owenen pentsamoldea oinarritzko erreferentzia bilakatu zen, batez ere langileriak eta sindikatuek beren ideiak bereganatu zituztelako eta XIX. mendearen bukaeran Ingalaterrako mugimendu kooperatibistan eragin handia izan zuelako.

2.1.2. COSen barneko eztabaidak

XIX. mendeko Ingalaterran, egoera ekonomikoaren ondorioz sortutako behar eta arazo sozialei erantzuteko asmoz (industrializazio-garai hartan, langile asko langabezia zeuden edo lan-baldintza oso gogorretan), karitate-erakunde pribatuak sortu ziren. Haietatik garrantzitsuena COS izenekoa izan zen (Charity Organization Society).

Erakunde horrek beharren jatorria bi lekutan kokatu zituen, eta horren arabera bi esku-hartze eremu garatu:

a) Beharren jatorria pertsonen barne-faktoreetan kokatzen zutenak (faktore pertsonalak):

- Pertsonak, ahulak direnez, beharrak dituzte, eta haien bihotzak aldatuz gero, haien egoera hobetuko da. Aldaketa hori lortzeko, onuradunaren eta bisitari-lagunaren arteko harreman pertsonala garatu behar da.
- Banakako esku-hartzea garatzen dute (*casework*).
- Pentsamolde horren aitzindarien artean Octavia Hill eta Mary Richmond daude.

b) Beharren jatorria pertsonen kanpoko faktoreetan kokatzen zutenak (faktore sozialak):

- Gizartearen antolaketak pobrezia daramatzala pentsatzen dute, eta, beraz, gizartean aldaketa estrukturalak proposatzen dituzte.
- Esku-hartze komunitarioa garatzen dute, baldintza sozialak hobetu daitezten: osasun-laguntzarako batzordeak, eskoletan umeen zaintzarako batzordeak, ospitaletan laguntzeko batzordeak, eta abar.
- Pentsamolde horren aitzindarien artean Edward Denison dugu.

Karitate-erakundeetatik hausnarketa interesgarriak sortu ziren gizarte-langintzaren mailan; beharbada, garrantzitsuena egun ezagutzen ditugun hiru esku-hartze mailak identifikatzea izan zen (banakakoa, taldekakoa eta komunitatekoa).

2.1.3. Establezimenduen mugimendua

Lehen establezimendua edo egoitza (Toynbee Hall) Londresen sortu zuten Samuel Barnett apaizak eta haren emazteak 1884an. Haien parrokia Londreseko auzo pobreenan kokatua zegoen, eta, auzokideei laguntzeko asmoz, zentro komunitario bat sortu zuten bertan. Egoitzan txiroak eta Oxforden zein Cambridgen graduaturiko gazteak elkarrekin bizi ziren. Unibertsitateetako gazteak graduatu ondoren, urte batzuetan zehar establezimenduan bizi izaten ziren, haien eragin pertsonala bertan utziz eta pobreak ekonomikoki, moralki eta kulturalki aberastuz.

Egoitzen helburuak hiru ziren: a) behartsuen hezkuntza- eta kultura-maila handitzea; b) unibertsitatean graduatutako gazteei pobreen bizi-baldintzen berri ematea, eta gizarte-erreformen beharrei buruz informatzea; eta c) biztanleria osasun-arazoan eta arazo sozialen aldera kontzientziatzea.

Barnett-ek uste zuen pobrezia-egoera bakoitzari indibidualki erantzun behar zitzaioela, baina konturatu zen pertsonen nortasuna indartzeko (hezteko) eraginkorragoa zela taldea erabiltzea, banakako esku-hartzea baino. Zentro komunitario haiek Ingalaterra osoan zehar zabaldu ziren, eta geroago Ipar Amerikan Jane Addams-en eskutik.

Establezimenduen mugimendua baliabide potentzialak ustiatzearen adibide argia da. Mugimenduak epe laburrera oso ondorio positiboak izan zituen txiroentzat eta epe erdira gradudunentzat, zeinek egoitza haietan ikasitakoa beren lanpostuetan aplikatu baitzuten.

2.1.4. Komunitatearen ongizaterako kontseiluak

Ameriketako Estatu Batuetan sortu ziren XX. mendearen hasieran (1908tik aurrera), eta azkar zabaldu ziren. Garai hartan Ameriketako Estatu Batuak europar immigrazio handia jasotzen hasi ziren, eta, horrekin batera, arazo sozial berriak sortu ziren: integrazio eza, arrazakeria, bazterkeria, eta abar. Errealitate berri horri erantzuteko ekintza komunitarioak jarri ziren martxan,

pertsonen ongizaterako ingurune familiarraren eta sozialaren eragina nabarmenduz. 1960an komunitatearen ongizaterako kontseiluak 700 ziren.

Haien helburuak anitzak ziren, besteak beste: a) ongizaterako ekintzen koordinazioa bultzatzea; b) gizarte-agentzia publiko eta pribatuen arteko kooperazioa lortzea; c) zerbitzuen maila mantentzea eta hobetzea; eta d) ongizatea lortzeko komunitateetako kideen ahalmena garatzea.

Kontseilu horien lana oso eraginkorra izan zen, eta komunitateko gizarte-langintzari eginiko ekarpen nagusia zera izan da: kooperazio eta koordinazio printzipioak bereganatzea.

2.1.5. Komunitateko kutxak

Arestian deskribatutako esperientzia bezala, komunitateko kutxen hastapena XX. mende hasierako Estatu Batuetan kokatu behar dugu (1913tik aurrera). Kutxa horien helburu nagusia zen gizarte-agentzientzako finantziazio-iturriak lortzea, baina baita agentzien artean diruaren birbanaketa ahalbidetzea ere. Horretaz gainera, hainbat proiektu komunitario egin zituzten, biztanleriaren ongizate-maila hobetzeko.

2.2. Ekarpen teoriko aitzindariak

Historian zehar hainbat erataria jardun da komunitatean edo komunitatearekin. Modu horiek ezaugarri propioak dituzte, batez ere metodologiari dagokionez, eta hainbat kontzepturen bitartez izendatzen dira. Areago, ezaugarri propioez gainera, badituzte izendatzaile komunak ere: biztanleriaren ongizatea lortzeko prozesuak dira, non komunitateko kideen parte-hartze zuzen eta aktiboa beharrezko baita arazo sozialen analisisian, kontzientziazioan eta erantzunean.

Funtsezko bi eredu garatu izan dira esku-hartze komunitarioan, komunitateko gizarte-langintzan eragin handia izan dutenak eta adituek aitzindaritzat jo dituztenak: “komunitatearen antolaketa” eta “komunitatearen garapena”, hain

zuzen ere. Beraz, horietariko bakoitza eragin metodologiko bilakatu da komunitateko gizarte-langintzan.

2.2.1. Komunitatearen antolaketa

Gizarte-langintzaren barnean sortu zen, eta Ameriketako Estatu Batuetan izan zuen garapen nagusia. Oro har, herri garatuetan erabili izan da, hirigunetako auzo pobre eta marjinetuen egoera hobetzeko. Izan ere, XX. mendeko 20ko hamarkadan, komunitatearen antolaketa modernoa lanbide gisa antolatzen hasi zen AEBn. Haren sorreran aurreko 100 urteetan izandako esperientziak eragina izan zuten: herri kooperatiboak, COS, establezimenduen mugimendua, komunitatearen ongizaterako kontseiluak eta komunitateko kutzak.

Komunitatearen antolaketan ez dago garaturik gorputz teoriko egokia, zeren dauden teoriak intuiziozkoak, implizituak eta frogatu gabekoak baitira. Gorputz teorikoaren inguruan dagoen gabeziak kontzeptu honen esanahia definitzeko orduan zailtasunak dakartza, eta autoreen arabera definizioak aldatzen dira. Beraz, ez dago oso-osoan (unibertsalki) onarturiko definiziorik. Marco Marchioni-ren arabera (1989), komunitatearen antolaketa, “komunitateko pertsona, talde eta erakundeen arteko integrazioaren eta koordinazioaren bitartez eginiko prozesu programatua da. Komunitateak berak eginiko planifikazio horretan kontuan hartzen dira eskaera sozial, tekniko, profesionalak eta komunitateak berak atzemandako lehentasunak”.

Komunitatearen antolaketa gizarte-langintzaren oinarrizko metodoetako bat bezala uler dezakegu, komunitatean nahi ditugun aldaketak lortzeko moldea adierazten diguna. Metodo hori komunitatearen beharrak eta baliabideak hobeto uztartzean datza. Izan ere, beharren eta baliabideen arteko oreka bultzatzea eta mantentzea dira komunitatearen antolaketaren helburuak.

Komunitatearen antolaketaren gauzatzea eraginkorra izan dadin, baldintza batzuk bete behar dira:

1. Helburua beti izan behar du komunitateko kideen arteko harreman gogobetekoak dakartzaten prozesuak garatzea (eta ez produktu edo emaitza zehatz batzuk lortzera bideraturikoak).
2. Helburu hau lortzeko filosofia demokratikoa erabili behar da, komunitatearen eskubideak eta erantzukizunak errespetatuz.
3. Erabiltzen diren prozesuek, metodoek eta trebetasunek laguntza-harremana bultzatu behar dute.
4. Gizarte-langileak komunitateko kideek onartua behar du izan.
5. Gizarte-langileak komunitateari lagundu behar dio bere arazoak identifikatzen.

Gizarte-langileak, komunitatearen antolaketan, banakakoan edo taldekoan bezala, ez du kontrol-funtzioa beteko, baizik eta laguntzarena.

2.2.2. Komunitatearen garapena

Gizarte-langintza lanbidetik kanpo jaio zen. Garapen-bidean dauden herrialdeetan erabili izan da, industrializazio- eta aurrerapen-prozesuak bultzatzeko asmoz. 1950eko hamarkadatik aurrera hasi zen erabiltzen, lehenengo Afrikako eta Asiako herrialdeetan eta geroago Hego Amerikan.

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 1956an txosten bat argitaratu zuen: “El progreso social mediante el desarrollo de la comunidad”. Bertan garapen komunitarioaren definizioa eman zuen: “Biztanleriaren eta horren gobernuaren esfortzuak elkartzen dituen prozesua da, komunitatearen baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko, nazioaren bizitzan integratzeko eta nazioaren aurrerapenean laguntzeko”.

Gizarte-langintzaren eremuan, María José Escartín-ek ere berezko definizioa garatu zuen (1998): “Komunitatearen hobekuntzarako mugimendua da, horren parte-hartze autonomoarekin edo gidatuarekin. Biztanleriaren ekimena eta ekimen horren ondorioz lortutako hobekuntza, biak, komunitatearen garapena dira; hau da, prozesua bera eta prozesuaren emaitza”.

Beraz, komunitatearen garapenaren helburua gizartearen aurrerapena lortzea da pertsonen eta instituzioen mobilizazioaren bidez, bai analisisian, bai programazioan eta baita jardueran ere. Komunitatearen hobekuntza ekonomiko, teknologiko eta soziala bultzatzen duen mugimendua da. Komunitatearen eraketa du helburu, eta horretarako eraketaren prozesuari jartzen dio arreta. Beraz, helburuak lortzeko prozesua helburuak berak baino garrantzitsuagoa izan daiteke.

Horretarako, parte-hartzea, burujabetza eta buruzagitza balioak sustatzen saiatzen da, tresna nagusitzat harturik komunitateko taldeekin elkarlanean aritzea. Komunitatearen eraikuntzan, komunitateko kideak parte-hartzaile aktiboak izango dira, profesionalekin bat eginez. Beraz, profesionalek trebatzaile-papera izango dute.

2.2.3. Birkontzeptualizazio-mugimendua

1960ko hamarkadan, garapenerako proposamen alternatibo ugari sortu zen arlo politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean. Nazioartemailan, politikoki nazio-askapenerako mugimenduak sortu ziren, eta deskolonizazio-prozesuak ugaritu. Zentzu horretan, hamarkadako liburu garrantzitsuenetako bat izan zen Franz Fanon-ek 1961ean idatzitako *Los condenados de la Tierra*, zeinari Jean-Paul Sartre-k hitzaurre garrantzitsu bat egin baitzion.

Urte haietan, garapen-bidean zeuden herriek galdera eta ezagutza berriak sortu zituzten gizarte-zientzien barnean. Herrialde horietako testuinguru historiko, politiko, ekonomiko eta sozial zehatzek esku-hartze soziala guztiz baldintzatzen zuten; beraz, planteamendu teorikoek, hurbilketa metodologikoek eta esku-hartzeen helburuek guztiz bestelakoak izan behar zuten; gizarte-langintzaren kasuan, argi zegoen ezin zela jokatu Estatu Batuetan edo European ordura arte jokatzeko ari zen bezala, zeren garapen-bidean zeuden herrialdeen errealitateak guztiz bestelakoak baitziren.

Horrela, 1960ko hamarkadaren amaieran, Argentinan gizarte-langintzaren eremuan mugimendu berri bat sortu zen, *birkontzeptualizazio* izena eman ziotena eta giza eta gizarte-zientzien artean zabaldu zena. Birkontzeptualizazioak, errealitatearen deskribapenak ez ezik, analisi politiko-ideologikoak integratzen ditu egitura kontzeptualetan.

Oro har, mugimenduaren ezaugarri nagusiak honela defini daitezke, besteak beste:

- Latinoamerikako errealitatearekiko lotura
- praktika politiko edo politizatua gehitzea
- prozesu akademiko kritiko baten barruko garapena
- gizartearen eraldatzea helburu duen praktika gauzatzea

Gizarte-langintzari dagokionez, mugimendu honek ekarpen handiak egin zizkion. Alde batetik, praktika eta metodologia berriak sortu beharra agerian geratu zen; bestalde, taldeen eta komunitateen kontzientziazio-prozesuen garrantziari oinarri teoriko eta praktikoa eman zitzaion.

2.3. Komunitateko gizarte-langintza Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian

2.3.1. Espainiako Estaturik

Komunitateko gizarte-langintza Espainian, nazioartekoarekin konparatuz, oso berria da. Lehendabiziko aztarnak 1960ko hamarkadakoak dira, eta sistematizatu gabeko esperientzia praktikokoak dira; hau da, gehienak ez daude idatziz jasota. Gainera, kasu isolatuak izan dira, gehienbat esparru pribatutik bultzatutakoak.

Espainiako komunitateko gizarte-langintzak komunitatearen antolaketarena baino komunitatearen garapenaren eragina jaso izan du, bai sorreran, bai bilakaeran ere, nahiz eta praktikan biak nahasirik ageri. Hori horrela izateko, bi arrazoi nagusi daude:

a) Garapen komunitarioari buruzko bibliografia Hego Amerikatik zetorren, eta, beraz, gaztelaniaz argitaratua zegoen; komunitatearen antolaketaren bibliografia, aldiz, ingelesez zegoen.

b) Estatuan, lurralde ugari (landa- zein hiri-inguruneak) garapen-bidean zeuden, azpigarapen-ezaugarriak zituztela, eta errealitate sozial horiek esku-hartze integrala eskatzen zuten neurrian, garapen komunitarioaren planteamendua egokiagoa zen.

Dena dela, komunitateko gizarte-langintzaren garapena Espainiako Estatuan oso mugatua izan da, baldintza sozio-ekonomikoak direla kausa. María Angeles Campo-ren arabera, gizarte-langintza ez zen sortu aldarrikapen-mugimendua gisa, baizik eta garaiko arazoei erantzuteko, inposaturik zegoen sistema politiko eta ekonomikoaren mende. Horregatik, urteetan zehar, gizarte-langintza ongintza eta gurasokeria izan ditu ezaugarritzat.

Ekarpen teoriko-metodologikoen arloan, bi autore nagusi eta erakunde bat aipa ditzakegu: Marco Marchioni (gizarte-langile italiarra) eta Montserrat Colomer (gizarte-langile espainiarra).

Marco Marchioni Espainiako komunitateko gizarte-langintzaren aitzindaria dugu. Espainiako profesionalentzat prestakuntza-ikastaro ugari eman zituen, Italian garaturiko komunitateko gizarte-langintza ezagutzera emanez. Estatuaren demokratizazio politiko eta sozialerako tresna gisa duen parte-hartzearen bultzatzailea da autorea. Horretarako, gizartearen parte hartzeko prozesuak Málaga Vález herrian proiektu bat jarri zuen martxan.

Montserrat Colomer-ek metodologiaren inguruan egin zituen ekarpen garrantzitsuak. Biztanleriaren parte-hartzeari garrantzi handia ematen zion. Metodologiaren inguruan espainiar idazle batek argitaraturiko lehen liburua harena da: *Método básico de trabajo social*. Haren hausnarketa teorikoa oso baliagarria izan zen Cáritasentzat, eta aurrera eraman zituen proiektuetan aplikatu zuen.

Bestetik, ekarpen praktikoen arloan, Cáritasek Espainiako hiri handietan martxan jarritako esperientziak izan ziren ekarpen nagusiak. Esku-hartzearen abiapuntua honako hau zen: pertsona guztiek gauzak aldatzeko eta eraldaketen protagonistak izateko indarra eta ahala dute; beraz, komunitatea pertsonaz osaturik dagoenez, indarra eta ahala izango du egoera sozialak hobetzeko.

Bilakaera historikoari dagokionez, hiru etapa edo aldi nagusi bereizten dira, taula honetan zehazten direnak:

2. taula: Komunitateko gizarte-langintzaren bilakaera historikoa Espainako Estatuan

Aldia	Ezaugarriak
1965 arte	<ol style="list-style-type: none"> 1. Egoera sozio-politikoaren ezaugarri nagusia: Elizaren eta estatuaren arteko lotura estua. 2. Ekintza soziala: ongintza. Laguntza-programak. Planifikazio falta. Prestakuntza falta. 3. Arazo sozialak: arazo sozialen jatorria indibiduala da, eta ez gizartearena. 4. “Komunitatearen garapen”aren planteamenduak agertzen dira, hainbat iturri direla medio: <ul style="list-style-type: none"> - Nazio Batuak - lanean ari diren gizarte-langileak - komunitatearen garapenean adituak diren pertsonak 5. Cáritasek esperientzia praktikoei hasiera ematen die, behar handienak zituen biztanleriaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko plan bat abiaraziz. 6. Ideia eta printzipio berrien onarpena eta hedapena izango da garai honetako pausorik garrantzitsuenetakoa: <ul style="list-style-type: none"> - garapen ekonomikoa eta soziala lortzeko baldintzak sortu behar dira, besteak beste biztanleriaren parte-hartze aktiboa. - komunitateak oinarritzotzat dituen beharrei aurre egin behar die. - tokiko liderrak animatu eta bultzatu behar dira. - gobernuaren eta beste talde batzuen laguntzak bilatu behar dira. - eskuragarri diren baliabideak ezagutu behar dira, lana eraginkorra izan dadin.
	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ekintza soziala: arazoaren erroa edo jatorria bilatzen hasten da. 2. Errealitate sozialaren inguruko ikerketa garrantzitsuak egiten dira, besteak beste pobrezia eta behar sozialen inguruko lehen ikerketak. 3. Cáritasen esperientzia sistematizatzen da (praktika teorikoki berreskuratu).

<p>1965etik 1970era</p>	<p>4. Gizarte-langintzaren profesionaltasunerako lehen erronkak: Bartzelonako Gizarte Langileen Elkarteak bi mintegi antolatu zituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> - banakako gizarte-langintzari buruzko mintegia. Nazio Batuetako adituek zuzendurikoa. Bertan planteatu zen banakako gizarte-langintzak uneoro komunitatea izan behar zuela erreferentziazat. - komunitatearen garapenari eta ikerketa sozialari buruzko mintegia. Eyvird Hytt-ek eta Marco Marchioni-k zuzenduriko mintegia dugu hau. Bertan esku-hartze komunitariorako oinarrizko ezagutzak landu ziren. Ondorioz, hiri industrializatuetako auzoetan esku-hartze komunitarioak jarri zituzten martxan. <p>5. komunitatearen garapena bi eratara ulertzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ebolutiboa: ezarritako sistemari egokitutako garapena nahi du. Beraz, sistemaren hobekuntzarako ekintzak proposatzen dira. - iraultzailea: ezarritako sistema zalantzan jartzen du, eta gizarte-egituren aldaketa oinarrizkotzat jotzen du. Beraz, gizarte-egitura berri bat proposatzen da. <p>6. Ideia berrien hedapena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - pertsona bakoitzak bere aldaketa-prozesuaren protagonista izan behar du. - gizarte-egituraren birmoldaketa baten beharra ikusten da. - komunitateko gizarte-langintzaren bidez, bazterturiko pertsonen zuzenduriko promozio-lana proposatu beharrean (ordura arte eginikoa), ekintza globala planteatzen da komunitateko kide diren guztiekin.
	<p>1. Aldaketa-garaia. Sistema demokratikoaren hasiera. 1978ko Espainiako Konstituzioa.</p> <p>2. Gizarte-zerbitzuei bultzada ematen zaie, bertan gizarte-langileak erreferentziazko profesionalak direla.</p> <p>3. Gizarte-zerbitzu publikoen ezaugarriak: a) deszentralizazioa; b) informazioa; eta c) parte-hartzea.</p>

<p>1970etik aurrera</p>	<p>4. Metodoaren oinarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - kontzientzia kritikoaren garapena - aukera askatzailea - aukera horrekin bat datozen ekintzak bultzatzea - berrikuspena eta ebaluazioa <p>5. Metodologiari dagozkion bost puntu proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - arazoei ikuspegi global batetik heldu, horiek errotik desagertu daitezkeen. - gatazka-estrategia erabiltzen jakitea. - komunitateko gizarte-langintza sistema demokratiko eta gizarteratzaile bihurtzea, “izan” eta “eduki” sinonimoak izan ez daitezkeen. - errealitateari aurre egitea eta hura eraldatzea, konpromisoaren balioa erabiliz. <p>6. Esku-hartze komunitarioaren bidez lortutakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - taldeak sortzea. - lider naturalak bultzatzea. - auzo eta eskualdeetan ekintzak gauzatzea. - kultura-garapena. - garapen sozio-ekonomikorako kooperatibak martxan jartzea. - sektorekako taldeak promozionatzea, gazteak eta emakumeak batez ere. - esperientziak trukitzea eta eztabaidatzea. - zerbitzu berriak asmatzea. <p>7. Bi mintegi egiten dira, Manresa-n eta Negrales-en. Horietan ondorioztatzen da, gizarte-langintzaren metodologia ez dela soilik banakakoarentzat; aitzitik, taldeko eta komunitateko gizarte-langintzari ere badagokiela.</p>
--------------------------------	--

Iturria: Egileek landua

2.3.2. Euskal Herria

Euskal Herriko komunitateko gizarte-langintzaren bilakaera historikoa guztiz baldintzatu du arloak Espainiako Estatuan izandako bilakaerak. Espainian bezala, berandu hasi zen, demokratizazio-prozesuarekin batera. Hortaz, 1980ko hamarkadatik aurrerako garaien azterketa gizarte-politikaren testuinguruaren barnean egin beharra dago.

1980ko hamarkadako gizarte-politika komunitateko kide guztiei zuzentzen zitzairen, norbanakoaren egoera ekonomikoa zeinahi zela ere; beraz, eskubide subjektiboa bermaturik zegoen. Ongizatearen ikuspegi zabala zen nagusi, eta horrek prebentziorako eta promoziorako programen garapena ahalbidetu zuen. Hamarkada horretan, gizarte-zerbitzuen sistema publikoa sortu zen, deszentralizazio-ereduari jarraituz, biztanleriaren arazoetara ahalik eta gehien hurbildu nahian. Bestalde, Euskal Herriak hezkuntzaren (1981), osasunaren (1988), gizarte-zerbitzuen (1988) eta hainbat mailegu ekonomikoren (1981) eskumenak eskuratu zituen.

1980ko hamarkadaren erdialdean aldaketa sozial, ekonomiko eta politiko garrantzitsuen hasiera gertatu zen, zeinek eragin handia izango baitzuten hurrengo hamarkadetako gizarte-politikan:

- Faktore ekonomikoak: industria-birmoldaketako prozesuaren hastea eta, horren ondorioz, langabeziaren handitzea.
- Faktore soziodemografikoak: populazioaren zahartzea, eta emakumeen txertatzea lan ordainduan eta bizitza publikoan.
- Faktore ideologikoak: ongizate-estatuen berregituratzea tesi neokontserbadoreen babespean.

1990eko hamarkadan, aurreko hamarkadaren bigarren erdiko aldaketen ondorioz, euskal gizarte-politikaren norabidea selektibismorantz zuzendu zen, non gizarte-zerbitzuen sistemaren sarbide-irizpidea izango baitira pertsonen eta haien familien baliabide ekonomikoak. Prestazioak edo zerbitzuak eskuratzeko baremo ekonomikoak erabiliko dira, gizarte-sektoreen artean desberdintasunak

ezarriz. Horrela, orain arte “eskubide subjektiboa” zena “gizarte-laguntza” izatera pasatu da, eta, prebentzio- zein promozio-programak bultzatu beharrean, laguntza-programak antolatzen dira arazo sozialen ondorioak arintzeko.

Beraz, Euskal Herriko gizarte-politikak aldaketa sozial eta politikoen prozesura egokitu du bere garapena. Gizarte industrialetik gizarte post-industrialera pasatu da eta ongizate-estatutik, post-ongizate-estatura. Hortaz, Euskal Herriko gizarte-politikaren garapenaren nondik norakoa ikusirik, selektibismorako joera dagoela esan daiteke. Gizarte-zerbitzuen sistema unibertsalizatua izan behar zuena baliabide, zerbitzu eta prestazio mugatu bihurtu da, beti eskatzaileen egoera ekonomikoa kontuan izanik. Horrek ondorio zehatz batzuk ditu gizarte-politikaren ikuspegitik:

1. Komunitateko kideak bi multzotan banatzen ditu: gizarte-zerbitzu publikoetara jotzeko baldintzak, bereziki ekonomikoak, betetzen dituztenak eta gizarte-zerbitzu publikoetatik at gelditzen direnak, baldintza horiek betetzen ez dituztelako.
2. Gizarte-zerbitzu publikoetatik at gelditzen direnen artean, beste bi azpimultzo sortzen dira: gizarte-zerbitzu pribatuetara jotzeko baliabide ekonomikoak dituztenak, alde batetik, eta baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak, bestetik.
3. Zerbitzu publikoetatik kanpo gelditzen direnek, bi azpimultzoetako kideek, ongizate-estatu publikoaren deslegitimazioaren aldeko jarrera defendatuko dute, haiek ez baitute estatu eredu horretatik inongo babesik jasotzen.
4. Gizartearen sektore handi bat babesik gabe biziko da: gizarte-zerbitzu publikoetara zein pribatuetara jotzeko aukerarik ez dutenak hain zuzen, bai baliabide ekonomiko gehiegi dituztelako (lehendabiziko kasuan: publikoak), bai baliabide ekonomiko gutxiegi dituztelako (bigarren kasuan: pribatuak).

3. taula: Gizarte politiken bilakaera historikoa Euskal Herrian 80ko eta 90eko hamarkadetan

<p>80ko hamarkada Beharrak / Arazo sozialak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gizarte industrialia 2. Ongizate-estatua 3. Ongizatearen ikuspegi zabala: gizarte osoaren ongizate-maila hobetzea 4. Gizarte-politika unibertsala 5. Gizarte-zerbitzuak: eskubide subjektiboa (herritar guztiei zuzendua, komunitateko partaide izateagatik) 6. Komunitatearen garapena: prebentzio- eta promozio-programak 7. Arazo sozialen “zergatiak” bilatzea 8. Helburua: gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea handitzea 9. Gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren sorkuntza: eredu deszentralizatua
<p>Trantsizioa Egokitze-prozesua</p>	<p>Aldaketa sozial eta politikoak:</p> <p>→Faktore ekonomikoak: industria-birmoldaketa eta langabeziaren igoera</p> <p>→Faktore soziodemografikoak: populazioaren zahartzea eta emakumeak ordaindutako lanetan hastea</p> <p>→Faktore ideologikoak: tesi neokontserbadoreen gorakada</p>
<p>90eko hamarkada Beharrak / Arazo sozialak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gizarte post-industrialia 2. Post-ongizate-estatua 3. Ongizatearen ikuspegi mugatua: gizartearen oinarrizko premiak asetzea 4. Gizarte-politika selektiboa 5. Gizarte-zerbitzuak: gizarte-laguntza, herritarren zati bati zuzendua (baremo ekonomikoek sarbidea mugatua) 6. Banakako arreta: laguntza-programak 7. Arazo sozialen “ondorio”ei erantzuten zaie 8. Helburua: arazo sozialen ondorioak arintzea 9. Ekimen pribatuaren eransketa

Iturria: Egileek landua.

2.4. Komunitateko gizarte-langintzaren lege-oinarriak

Esku-hartze komunitarioak komunitateen eta kolektibitateak aldatzea eta hobetzea du xede. Aldaketa eta hobekuntza horiek programa komunitarioak martxan jartzen dituzten ikusmolde ideologikoen mende daude. Horrela, edozein proiektu politiko lege bihurtzen denean, biztanleriak jakingo du ea haien eskubideak babesten diren ala ez eta, halaber, biztanleriak legearen babesa izan dezakeen eskaerak egiteko orduan.

Komunitateko gizarte-langintzari dagozkion legeak zerrendatuko dira jarraian, legedi nagusia, baina kontuan izan behar da horri buruzko erreferentziak bestelako legeetan nahiz dekretuetan ere aurki daitezkeela.

a) Europa

Europako Gizarte Gutuna, 1961eko urriaren 16an Turinen sinatua, gizarte-politika gizarte-zerbitzuen bitartez gauzatzeko oinarria da:

- 14. artikularen arabera, estatuaren betebeharra gizarte-zerbitzuak sortzea eta bultzatzea da.
- 12. eta 13. artikuluek gizarte-segurantzaren, laguntza-gizartearen, arreta medikoaren eta gizarte-zerbitzuen inguruko araudia finkatzen dute.

Espainiak 1980an berretsi zuen Europako Gizarte Gutuna; beraz, estatuko ordenamendu juridikoari dagokio (BOE, 1980ko ekainak 26 eta abuztuak 11).

b) Espainiako Estatua

Espainiako Estatuan, ordenamendu juridikoaren funtsezko araudia **Konstituzioa** da, 1978ko abenduaren 6an onartua izan zena. Nahiz eta bertan gizarte-zerbitzuen definiziorik ez eman, haien nondik norakoa, aldiz, zehazten da. Orobat,

hainbat artikulutan botere publikoen betebeharra jasotzen da, biztanleria-sektoreei eta gizarte-beharrei dagokienez:

- 5.2 artikuluan: zigortuak
- 39.1 artikuluan: familiak
- 39.4 artikuluan: haurrak
- 40.1 artikuluan: lanbidea
- 41. artikuluan: gizarte-segurantza
- 42. artikuluan: itzultako migrazioa
- 43. artikuluan: osasuna
- 44. artikuluan: kultura
- 45. artikuluan: bizi-kalitatea
- 47. artikuluan: etxebizitza
- 48. artikuluan: gazteak
- 49. artikuluan: ezgaitasunak
- 50. artikuluan: adineko pertsonak

9.2. artikuluan, parte-hartzea elkarbizitzaren oinarria dela aintzat hartzen da. 148.1 eta 149.3 artikuluetan, autonomia-erkidegoek beren estatutuen bitartez bereganatu ditzaketen eskumenak jasotzen dira; besteak beste, gizarte-laguntza.

Bestalde, ezarrian dago ere **Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legea**, 1985eko apirilaren 3an onartua. Lege horrek esku-hartze komunitarioarentzat oinarrizkoak izango diren alderdiak jasotzen ditu:

- 69. artikuluan, udalerraren antolaketa eta eskumenak jasotzen dira.
- 26.3 artikuluan, aldundiek udalei nolako laguntza emango dieten deskribatzen da.
- 24. artikuluan, bermatzen du udalek gizartearen parte-hartzea arautzeko askatasun osoa dutela.
- 25.-28. artikuluetan, tokiko administrazioen eskumenak, gizarte-zerbitzu espezializatuei dagozkienak, zehazten dira:

- Komunitateko kideek dituzten beharrak asetzeko edozein ekintza edo zerbitzu bultzatu.
- Gazteriarentzako lehen mailako arretan eta kudeaketan parte hartu.
- Promoziorako edo gizarteratzeko gizarte-zerbitzuak gauzatu.
- Ekintza eta instalazio kulturalak zein kirolekoak eskaini.
- Hezkuntzaren programazioan parte hartu.
- Hezkuntza, kultura, etxebizitza, osasuna zein emakumezkoak promozionatzeko ekintza osagarriak egin.

c) Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua 1979ko abenduaren 18an onartu zen, eta erkidegoko lege-ordenamenduaren oinarritzko araudia da. 10. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak definitzen dira:

- gizarte-laguntza
- elkarte eta fundazio onuragarriak, laguntzaileak edo antzekoak
- adingabeak babesteko, kartzelatzeko eta gizarteratzeko instituzioen antolaketa eta erregimena
- komunitatearen garapena
- haur- eta gazte-politika
- adinekoak
- emakumeak

Bestalde, **Lurralde Historikoen Legea** dugu, 1983ko azaroaren 25ean onartu zena. Euskal Herriko instituzioen eskumenen banaketa arautzen da lege honetan. 7.c artikulua araberan, lurralde historiko bakoitzaren eskumena izango da gizarte-laguntzaren eta komunitatearen garapenaren inguruko legedia gauzatzea.

Azkenik, **Gizarte Zerbitzuen Legeak** aipatu behar dira, 1982koa, 1996koa eta 2008koa:

a) 1982koa

- Helburua: “Egungo egoerako akatsak zuzentzea”.
- Lege bateratu eta koherentea zen, gizarte-zerbitzu guztiak erregulatzen zituena.
- Europako Gizarte Gutunera moldaturik definitu ziren gizarte-zerbitzuak: “norbanakoaren ongizatea eta komunitatearen garapena handitzen laguntzen duten zerbitzuak”.
- Administrazio publikoak (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak) dira gizarte-zerbitzuak finantzatu behar dituztenak.

b) 1996koa

- Helburua: “Marko legegilea errealitate berrira moldatu, hainbat aldaketa kontuan izanik: langabeziaren igoera, populazioaren zahartzea, emakumeak lan-munduan sartzea, eta abar”.
- Gizarte-zerbitzuen sisteman bi maila bereizten dira: oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzu espezializatuak.
- Udalerrri guztiek oinarrizko gizarte-zerbitzuak izan behar dituzte, eta 20.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerriek, oinarrizko gizarte-zerbitzuez gainera, beste zerbitzu bat ere eskaini behar dute: larrialdietarako arreta-zerbitzua, hain zuzen ere.
- Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen aurrekontuez gainera, beste diru-ekarpen batzuk ere onartzen dira, baita erabiltzaileen ekarpenak ere gizarte-zerbitzuak ordaintzeko.

c) 2008koa (12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa):

- Helburua: lege honek prestazio, zerbitzu eta ekipamendu publiko eta pribatu itunduak jasotzen ditu, pertsona, familia edo talde guztiei gizarteratzen eta bizimodu autonomoa izaten laguntzeko.
- Promozioan, prebentzioan, babesean eta laguntzan oinarritutako funtzioak gauzatzen ditu, prestazio eta zerbitzu pertsonalak eta harreman-zerbitzuak eskainiz.

- Hartzaileei gizarteratzen eta bizimodu autonomoa izaten laguntzea izango da diru-laguntzaren helburua.

Lege horren ildoan aipatu behar da ere 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, **Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa**.


- Helburua: gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema arautzea: beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea; herritar izateak dakartzan eskubide sozialak, benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonal, sozial eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.
- Sistema horren kudeaketan gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek hartuko dute parte.
- Eskainitako babesak gero eta zabalagoa izan behar du.
- Herritarrei prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eskuratzeko aukera izango dutela bermatzea, berdintasun eta ekitate-irizpideak betez, eta EAEren lurralde-eremu osoan era homogeneoan banatuta egongo direla ziurtatzeko beharrezko neurriak hartuta.

3. KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN EREDU TEORIKOAK

Sarrera

Esku-hartze komunitarioa prozesu metodologiko baten bitartez egiten da. Jakin badakigu komunitateko gizarte-langintzak, komunitate-eremuak dituen berezko ezaugarrietara egokiturik, gizarte-langintzaren metodoa erabiltzen duela. Baina, metodo horren aplikazioan, ikuspegi teorikoek eragin handia daukate. Praktika profesional konkretuek ikuspegi teoriko konkretuei erantzuten diete; beraz, planteamendu teorikoek praktikak orientatzen dituzte, eta, ondorioz, baita mugatu ere. Teoria horiek eredu teorikoetan zehazten dira.

GIZARTE-LANGINTZAREN METODOA



Kisnerman-en hitzetan, ereduak “errealitatearen taxutze (eratz) sinplifikatuak eta eskematikoak dira, teorietatik sortzen direnak eta enpirikoki (praktikan) egiazta daitezkeenak”. Beraz, ereduak errealitatera gerturatzeko mikro-teoriak dira.

Abstrakzio-maila kontuan izanik, handitik txikira, honako sekuentzia honen aurrean gaude: Teoria → Eredua → Metodoa.

- Teoria: oinarri kontzeptualak jartzen ditu eta ereduaren egiaztatzea da.
- Eredua: errealitatearen definizioa eta deskribapena ematen ditu. Edozein eredu teoria batez edo gehiagoz osa daiteke.
- Metodoa: ereduaren orientazioaz eratzen den prozedura da.

Teoria eta esku-hartze ereduen aukeraketa irizpide konkretu batzuek baldintzatua dago; beraz, aukeraketa ez da zorizkoa. Hill-en ustez, hauek dira aukeraketa baldintzatzen duten faktore nagusiak:

- konpondu nahi diren arazo motak
- balioak eta etika
- gizakia eta gizartea ulertzeko modua
- gizarte-langilearen eta erabiltzailearen arteko harremanaren izaera

Dena dela, gizarte-zientzietan (eta, beraz, gizarte-langintzan ere) ohikoa da praktika eredu teoriko askotan oinarriturik egotea (multiparadigmatikoa; paradigma aniztasunekoak), esku-hartze eremua konplexua delako eta eraldaketa jarraikien mende dagoelako. Horregatik, profesionalek eredu guztiak bateraturik erabiltzeko gai izan behar dute.

3.1. Teoria soziologikoen eragina gizarte-langintzan

Gizarte-langintzaren eredu teoriko eta metodologikoen eraketan, eragin nabarmenena izan duten oinarrizko teoria soziologikoak honako hauek izan dira: funtzionalismoa, gatazkaren teoria eta hermeneutika.

3.1.1. Funtzionalismoa

Funtzionalismoaren ezaugarri nagusien artean honako hauek aipa daitezke: gizakien arteko harreman ordenatuetan du interesa, eta, harreman horiek aztertzeko, natura-zientzietan egiten den ezagutza-prozesua hartzen du eredutzat. Kasu horretan, beraz, enpirismoa da errealitate sozialaren ezagutzarako bidea.

Azalpen kausalak datu objektibo eta kuantitatiboen bidez bilatzen dira (“ezagutza zientifikoa”), eta alderdi subjektiboak alboratzen dira. Errealitatean ageri diren uniformetasun eta erregulartasunak bilatzen dira, era egokian orokortuta eta abstraituta lege bihurtuko direnak. Arrazionaltasun burokratikoan oinarritzen da.

Ondorioz, teoria funtzionalisten eraginpean garatu diren gizarte-langintzaren ereduek honako ezaugarri hauek azaltzen dituzte:

- egitura sozialen zentraltasuna.
- egoera sozialak erregularitateen eta oreka sozialen arabera aztertzen dira, eta giza portaera estereotipoan oinarritzen da.
- oreka horretara egokitzen ez diren portaerak disfuntziotzat edo desbideratetzat hartzen dira. Beraz, egoeren eta arazoaren arduraren indibidualizazioa da nagusi.

3.1.2. Gatazkaren teoria

Gatazkaren teoria deitzen denaren barne, hainbat pentsamendu eta korrante badira ere, aitzindaria eta nabarmenena marxismoa dugu. Pentsamendu edo korrante guztien atzean, dena dela, hausnarketa komun bat sumatzen da: gizarteak du —eta ez gizabanakoak— pertsonak eta komunitateek dituzten arazoaren ardura nagusia. Horrela, apostua eraldaketaren aldekoa da, hau da, gizabanakoen bizi-baldintza estrukturalen eraldaketa erradikalaren aldekoa.

Gatazkaren teoria funtzionalismoari kontrajartzeko edo horren alternatiba izateko sortu eta garatu zen. Harekin ezaugarri komun garrantzitsu bat du, egitura sozialei ematen zaien garrantzia edo zentraltasuna, hain zuzen.

Gatazkaren teoriaren eraginpean, gizarte-langintzaren ikuspuntutik etengabeko interes-gatazkan dauden bi talde sozial aurkitzen ditugu gizarte-errealitatean: alde batetik, baliabideak izanik sistema sostengatzen dutenak eta, bestetik, sistematik at geratzen direnak, zeinek egoera pertsonala eta klasekoa aldatzeko aukerarik ez baitute. Azken horiek, hain zuzen, ongizate-estatuaren onuradunak lirake, sistemaren baliabideetatik onura hartzen dutelako. Zentzu horretan, ongizate-estatua ulertzen da kapitalismoak egonkortasun politikoa eta soziala mantentzeko ordaindu beharreko prezio gisa.

3.1.3. Hermeneutika

Teoria hermeneutikoen edo interpretatiboen arabera, garrantzia ez dago hainbeste egitura eta instituzio sozialetan eta haien funtzioetan, baizik eta ekintzaren balio subjektiboan. Hau da, pertsonaren ikuspuntua ezagutu ezean (bere esperientziari ematen dion esanahia) ezin da fenomenoaren errealitate ukiezina ezagutu.

Teoria horien eraginpeko gizarte-langintzan, errealitatearen ulermena komunikatu beharra azpimarratzen da; hau da, gizarte-langileak pertsonari lagunduko dio bere esperientziaren kontzientzia hartzen eta esanahia ulertzen (diagnostiko partekatua egiten, beraz). Orobat, fenomeno bat hobeto uler daiteke, erreferentzia-testuinguru zabalduz; horrela, pertsonaren testuinguruari garrantzia ematen zaio, osotasun bezala hartuta, zeinak maila mikro eta makroa baititu.

3.2. Oinarrizko eredu teorikoak

Aurreko gaien sakonago garatu badira ere, hemen azpimarratuko dugu komunitateko gizarte-langintzan, komunitate-garapena eta komunitatearen antolaketa ditugula eredu tradizionalak, eta haien ildotik garatu direla beste hainbat eredu teoriko eta metodologiko. Horien artean, arreta jarriko zaio, bai Alan Twelvetress-en tipologiari, bai Jack Rothman-en eredu sailkapen klasikoari.

3.2.1. Eredu tradizionalak

a) Komunitatearen antolaketa

Sakabanaturik eta antolatu gabe dauden zerbitzuak koordinatzeko helburua duen proposamen teoriko-metodologikoa da, beharren eta baliabideen arteko oreka mantendu nahi duena. Hainbat tresna erabiltzen dira hori lortzeko: gizarte-zerbitzuen koordinazioa, programen garapena eta ongizatearen planifikazioa, zeinak babes-sistemetan erabiltzen baitira (etxebizitza, osasuna, hezkuntza, eta

abar). Hau da, komunitatean dauden arazoei konponbide teknikoak eta arrazoizkoak bilatzen zaizkie. Komunitateko kideak zerbitzuen hartzaileak dira (kontsumitzaile aktiboak), baina politiken planifikazioan eta gauzatzean parte hartu gabe. Hortaz, gizarte-langilearen rola adituarena edo jakitunarena izango da.

b) Komunitatearen garapena

Komunitatearen hobekuntza ekonomiko, teknologiko eta soziala bultzatzen duen planteamendu teoriko-metodologikoa da. Komunitatearen eraketa du helburu eta horretarako eraketaren prozesuari ematen dio lehentasuna. Beraz, helburuak lortzeko prozesua helburuak berak baino garrantzitsuagoa izango da. Horretarako, parte-hartze, burujabetza eta buruzagitza balioak sustatzen saiatzen da, darabilen tresna nagusia komunitateko taldeekin elkarlanean aritzea izanik. Komunitatearen eraikuntzan, komunitateko kideak parte-hartzaile aktiboak izango dira profesionalekin bat eginez. Beraz, profesionalek trebatzaile-papera izango dute.

3.2.2. Jack Rothman-en sistematizazioa

Jack Rothman-ek (1970) komunitateko esperientzia praktiko zein planteamendu teorikoak hiru eredutan sistematizatzen ditu:

a) Herri-garapena

- Eredua komunitario honetan, komunitatea unitate geografiko eta errealitate isolatu gisa definitzen da, gizartetik berezia.
- Biztanle guztiek komunitatearen erabakietan parte hartzen dute, eta denak komunitatearen hobekuntzarako ekintzetan inplikatzeko dira. Beraz, metodologia parte-hartzailea erabiltzen da (IAP / Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea).
- Profesionalek trebatzailearen papera izango dute.
- Eredua funtsezko elementuak bost dira:

- prozedura demokratikoak
 - borondatezko kooperazioa
 - autolaguntza
 - komunitateko kideen artean liderrak egotea
 - hezkuntza
- Eredu hau aplikagarriagoa da dimentsio txikiko hiri-inguruneetan, 100.000 biztanle ingurukoetan.
 - Bat dator komunitatearen garapenarekin. Komunitateko kideen gaitasunak garatuz, lidergoak bultzatuz eta parte hartzeko prestatuz lortu nahi dira komunitatean aldaketak. Garrantzitsuen prozesua da, eta lidergo nahiz parte-hartze balioak dira azpimarragarri.

b) Gizarte-plangintza

- Gizarte-plangintzak gizarte-antolaketaren ereduaren edukiak bereganatzen ditu.
- Hasiera batean, eredu horrek ingurune bateko gizarte-zerbitzuen koordinazioari jartzen dio arreta, eta geroago, programak garatzen eta ongizatea planifikatzen (gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, osasuna eta hezkuntza) arituko da.
- Helburua gizarte-arazoei (delinkuentzia, etxebizitza, buruko gaitzak) konponbidea ematea da, eta horretarako prozesu teknikoa darabil. Arrazoizkotasuna eta kontrolpeko eraldaketak ereduaren erdigunean kokatzen dira.
- Profesionalek adituaren edo jakitunaren papera izango dute.

c) Gizarte-ekintza

- Eredu horrek komunitatea boterez eta pribilegioz osaturiko egitura hierarkizatu gisa ikusten du, non biztanleria zapaldua baitagoen eta gizarte-bidegabekeria baita.

- Komunitateko biztanle taldeen artean interes-gatazkak daude, eta horiek bateraezinak dira.
- Planteamendu filosofikoa eta teorikoa Alan Twelvetrees-ek deskribaturiko Eskola Sozialistarekin bat dator.
- Parte-hartzea da defendatzen duten balio nagusia.
- Administrazioaren politikak aldatu nahi ditu, eta baita boterearen banaketan eraldaketak egin ere. Helburu horiek lortzeko, komunitateko taldeekin eta elkarteekin lan egiten du.
- Profesionalek antolatzailearen papera izango dute, biztanleria norabide zehatz batean aritu dadin.

4. taula: Komunitateko gizarte-langintzan esku hartzeko Jack Rothman-en ereduaren proposamena

Ereduak	Gizarte-ekintza	Gizarte-plangintza	Herri-garapena
Helburuak	-Prozesua eta emaitzak	-Emaitzak	-Prozesua
Biztanleria kontzeptua eta esleituriko papera komunitatean	-Erabiltzaileak biktimatzen jotzen dira -Komunitateko buruzagiek helburuak eta ekintzak erabakitzen dituzte	-Erabiltzaileak zerbitzuen kontsumitzaile aktibotzat jotzen dira. -Ez dute parte hartzen erabaki politikoetan, ezta ekintza-erabakietan ere.	-Erabiltzaileak biztanletzat jotzen dira -Parte-hartze aktiboa dute komunitateko erabakietan
Komunitatearen egoeraren zergatiak	-Komunitatea boterez eta pribilegioz osaturiko egitura hierarkizatua da, non biztanleria zapaldua baitago eta gizarte-bidegabekeria baita	-Komunitatea antolatua dago eta berari bakarrik eragiten dioten arazo bereziak ditu	-Komunitatea unitate geografiko eta errealitate isolatu gisa definitzen da, gizartetik berezia
Botere-egiturarekiko iritzia	-Komunitatetik kanpo dagoen elementutzat jotzen da, oposiziokoa eta zapaltzailea	-Profesionalen babesle eta kontrolatzaile gisa ikusia da -Biztanleriak ez du komunitateko kide izanik leukakeen bezainbesteko boterea	-Komunitateko kide gisa ikusia da. Komunitateko egituraren parte bat da, zeinak biztanleriaren helburu berak baititu
Profesionalaren rola	-Ekintzailea eta antolatzailea	-Aditua edo jakituna	-Treatzailea
Esku-hartzerako estrategia	-Gatazka-taktikak	-Gatazka edo adostasun taktikak, profesionalaren analisiaren arabera	-Adostasun-taktikak

Iturria: Tomasa Ibañez.

3.2.3. Alan Twelvetress-en tipologia

Alan Twelvetressen ustean (1988), nahitaezkoa da planteamendu filosofiko-ideologiko bat izatea, zeinak munduaren ikuspegi bat ahalbideratuko baitu, eta oinarri teoriko sendoak izatea, zeinak komunitateko gizarte-langintzaren praktikak behar dituen helburuak eta estrategiak lantzea posible egingo baitu. Hortaz, gauzatzen den esku-hartzea (praktika) planteamendu filosofikoekin eta oinarri teorikoekin bat ez etortzeak kontraesan handiak sor ditzake.

Twelvetressek komunitateko gizarte-langintzan, planteamendu ideologikoek eta oinarri teorikoek baldintzaturik, bi ikuspegi identifikatzen ditu:

a) Eskola profesionala

Eskola honetako profesionalak garrantzi handiagoa ematen diote elkarren arteko laguntzari presio-taldeek egiten dituzten ekintzei baino, eta nahiago dute tokiko administrazioarekin elkarlanean aritu hari aurka egin baino. Jakin badakite ekintza komunitarioak osagai politikoa duela, baina, hala ere, nahiago dute osagai teknikoari lehentasuna eman, alderdi politikoren batekin identifikatuak izatearen kezka baitaukate.

Bestalde, eta teoriei dagokienez, interes handiagoa daukate esku-hartze komunitarioaren inguruko teorietan, gizartearen funtzionamenduaren inguruko teoria orokorretan baino. Esku-hartze egokia ziurtatzeko, beharrezkoa deritzote tekniketari ondo prestatuak egoteari eta haiek erabiltzen trebatzeari. Beraz, heziketa iraunkorrari lehentasuna ematen diote: teknikei, planifikazioari, gainbegiraketari eta dokumentazio profesionalari.

b) Eskola sozialista

Eskola honetako profesionalak planteamendu ideologiko kritikoa edo dialektikoa defendatzen dute, non esku-hartze komunitarioa “klasearteko borroka”ren barnean kokatzen baita. Helburua gizarte sozialista bat lortzea da.

Horretarako, profesionalen eginkizuna langileria kontzientziaztean eta korrante ideologiko honetako elkarteen boterea indartzean datza. Erabiltzen dituzten esku-hartzerako estrategiak Rothman-ek “gizarte-ekintza” eremuan proposatzen dituenekin bat datoz, alegia: klasearteko borroka eta komunitateko borroka bateratzearen alde ekitea eta gizarte-arazoan analisi globalak bultzatzeko komunitateko taldeak kontzientziaztea.

SAUL ALINSKY ETA HAREN METODOA

Saul Alinsky AEBko demokrata ezkertiar erradikala izan zen. Errealitatea aldatzeko beharrak gidatzen zuen beraren jarduna, eta baita gizarte-bidegabekeriarekiko sentiberatasunak ere. Sindikatuekin batera, eskubideen aldeko borrokan parte hartu zuen aktiboki. Bere jardunbide komunitarioa 1938an hasi zuen, Chicagon, “Back of the Yards Council” erakundearekin. IAF edo Industrial Areas Foundation-en zuzendari izan zen.

Komunitateen antolakuntzan lan egiten zuen, komunitatea metodo eta helburu gisa harturik. Haren lanaren xedea zera zen: hiri handietan edo metropolietan agertzen ziren arazoak onbideratzea. Estatu Batuetako gizarteaz azkar industrializatuz eta urbanizatuz zihoan heinean, hiriko komunitateez arduratu zen. Alinsky-ren ikuspuntutik, hiri-testuinguru horretan ernalduz doazen arazoak elkarrekin lotzen dira, arazo-sistema korapilotsu batean (pobrezia, segregazioa, etxebizitza, garraioa...). Testuinguru horretan, sortu eta garatu zuen bere metodoa.

Alinskyren metodoaren funtsezko oinarriak, laburki, honako hauek ziren:

- Pobreen (kasu honetan populazio beltza, baztertuak...) gogogabezia eta dependentzia ez dira aldatu nahi ez izatearen ondorioa, baizik eta itxurazko ezintasunak sortutako indargabetzearen ondorioa. Hala ere, isiltzen den erresumin hau ez da desagertzen; aitzitik, ezkutuan jarraitzen duen sentimendu bizi bat da.

- a. Zapaldutako sentimendu horiek itzartzea ezinbestekoa da haien plazaratzeko: ezkutuko sentimendu horiek ez dira epeldu behar, baizik eta asaldatu, plazaratu, mugiarazi; hau da, energia horri probetxua atera behar zaio. Aipatutako asaldatze-prozesu hori egin behar da, komunitatearen beharrak eta interesak oinarri gisa hartuz (“hot issues”). Behar eta interes horietara iristeko ekintza aktiboak nahitaez dakar zapaldutako sentimenduak azalaraztea.

- b.** Beharrea dauden pertsonen antolaketa beharrezkoa da, boterea beren gain har dezaten.
- d.** Gatazkak eta eztabaidak nahiz liskarrak ezinbestekoak dira prozesu horretan: gatazka azalatu behar da bere osotasunean, komunitatea antolatzeko.
- e.** Boterea bereganatzea eta erabiltzea: boterea da metodoa bera. Boterea definitzean esaten dugu helburuak lortzeko ekintzarako ahalmena dela. Pobrean kasuan, kopurua da boterea: komunitateak boterea eduki dezake, haren kideak antolatzen badira. Boterea dutenen kontra ekintza zuzenaren bitartez, helburuak lortzea posiblea da. Ekintza zuzen deitzen zaio presioa egiteari, hainbat neurri hartuz aldaketak lortzeko. Baina eragina izateko ezinbestekoa da kideen parte-hartze osoa prozesuan zehar.

- Egoeraren azterketa errealista egin behar da, helburu eta baliabide errealak aztertuz eta kontuan hartuz. Liderrak eta parte-hartzaileak hautatzea eta prestatzea litzateke hurrengo pausoa. Gero, erakunde autonomo bat eratzea. Azkenik, helburuak argiak eta lortzeko modukoak izanda, horiek lortzeko ekintzak planifikatzea besterik ez da falta.

4. GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA

Sarrera

Gizarte-langintzaren dimentsio komunitariora hurbiltzeko ezinbestekoa da kontzeptu edo gai batzuei heltzea, horiek berezitasun komunitarioaren oinarriak diren neurrian. Gizarte-langileak komunitatean esku hartu nahi badu, gai horiek landu beharko ditu, beste profesional batzuekin eta herritarrekin elkarlanean aritu beharko duen heinean. Halaber, komunitatean eragina duten kontzeptu edo gaiak dinamikoak dira; espazioak eta denborak baldintzatuak daude, eta horrek etengabeko hausnarketa egitea eskatzen digu.

Fantova-ren esanetan, estatuen konfigurazioaren, botere publikoen eta administrazio publikoen krisialdi bat bizitzen ari gara, honelako fenomenoaren eragina jasaten ari baitira:

- Giza ibilbideak indibidualizatzea eta gizarte-arrisku berriak agertzea.
- Elizaren, alderdi politikoaren, sindikatuen eta gizarte-bizitzan betidanik garrantzitsu izan diren erakundearen balioa eta legitimotasuna zalantzan jartzea.
- Masa-kontsumoaren dinamikarekin loturiko komunikabideen indarra.
- Emakumeen paper berriaren edo migrazio-mugimenduen eta antzeko fenomenoaren eraginez, familiak eta komunitateak berregituratzea.

Testuinguru horretan, botere publikoek, haien legitimotasunari dagokionez, behar berriak dituzte, eta gizarte-eragileek (baita elkarteek eta boluntarioek ere) parte hartzeko aukera berriak aurki ditzakete. Bestetik, estatuak, gizarte-zerbitzuen eta gizarte-babesaren hornitzaile den aldetik, estrategia-, aliantza- eta gestio-formula berriak bilatzen ditu. Horrek guztiak panorama beste era batera marrazten du; horregatik, sareko gobernuaz, gestio publiko berriaz, loturazko administrazioaz eta abarrez hitz egiten da.

Oraingoan, komunitatean eragina duten gaietatik nabarmenena aztertuko dugu: parte-hartzea eta horren adierazpenak, hain zuzen ere.

4.1. Parte-hartzea

4.1.1. Gizarte zibila eta horren parte-hartzea gizarte bizitzan

Gizarte zibila (biztanleria ekintza kolektiboan antolatua) eta estatua (administrazio publikoaren entitateen multzoa) dira komunitatearen garapenaren eragile nagusiak. Gizarte zibila eremu pribatuaren eta askatasun indibidualaren adierazlea da; estatua, berriz, eremu publikoarena eta arauena. Horregatik, biek elkar ulertzeko eta elkarrekin jarduteko betebeharra izango dute, helburua komunitatearen ongizatea lortzea baldin bada. Gizarte zibilak, bereziki, tokiko bizitza publikoan parte hartzen du, bere interesak defendatzeko eta komunitatearen ongizatea lortzeko.

Egungo ordezkapenezko demokrazietan biztanleriaren parte-hartzea zenbait modutan bideratzen da:

- Eskubideen gauzatze indibiduala: hauteskundeetan bozkatzuz, eta iradokizunak, erreklamazioak eta kexak aurkeztuz, batik bat.
- Boluntarioritza: laguntza-elkarte antolatueta parte hartzean datza. Elkarte horiek elkartasunaren printzipioan oinarritzen dira, eta haien helburu nagusia gizarteko biztanleria-sektore ahulei laguntzea da; beraz, bazterkeria-eremuan aritzen dira. Boluntarioritza epe erdira edo luzera mantentzen den inplikazioa da, instituzio edo elkarte baten barnean eta proiektu bati lotua.
- Gizarte-mugimenduak: arazo konkretu bati erantzuteko sortzen den herritarren mobilizazio batean parte hartzean datza. Gizarte-mugimenduek aldarrikapen-izaera dute, eta gehiegikeriari, bidegabekeriei edo gizarte-behar bati aurre egiteko sortzen dira.

- Parte-hartze planifikatua: tokiko administrazioaren erakundeetan parte hartzea gizarte zibilaren ordezkari gisa, hala nola udaletako gizarte-kontseiluetan.

Ordezkapenezko demokrazietan, parte hartzeko bide horiek legedi zehatz baten babesa dute. Legedi horretan oinarritzen bagara, herritarren parte-hartzea sendotzeko elementurik garrantzitsuena estatu demokratikoen sorrera izan zela esan dezakegu. Izan ere, estatu demokratikoetan, biztanleriaren parte-hartzea, berez, ez da bakarrik kudeaketa edo administrazioaren lana kontrolatzea; erabakietan ere zeresana izango du, kide aktibo bilakaturik.

Espainiako Estatuan, 1978ko Espainiako Konstituzioak, 9.2 atalean, adierazten du botere publikoek herritarren parte-hartzea bizitza politikoan, ekonomikoan eta kulturean erraztu behar dutela, alderdi politikoan eta interes taldeen bitartez. Euskal Autonomia Erkidegoan, 1979ko Estatutuak, 10.13 atalean, adierazten du Euskadik ekimen pribatuaren arloan eskumen eskusiboa daukala. Hala, Fundazioen, Elkarteen eta Boluntariotzaren legeak ditugu.

Bestalde, Euskadin 1985eko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak jasotzen duenez, parte-hartzea herritarren betebeharra eta eskubidea da, eta horrek udalerriko bizitza sustatzen du. Halaber, tokiko administrazioek elkarteen garapenaren alde egin behar dutela dio: informazioa eskainiz, baliabide publikoen erabilera erraztuz, diru-laguntzak eskainiz, eta abar. 2003ko legeak, 1985eko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzen duenak, biztanleriaren parte-hartzeari erreferentzia zuzena egiten dio, biztanleriaren inplikazioa eta parte-hartzea tokiko bizitza publikoan handitu behar dela defendatuz.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legeak gizarte-zerbitzuen printzipio nagusiak jasotzen ditu. Horien artean, gizartearen parte-hartzea eta administrazio publikoaren eta ekimen pribatuaren arteko elkarlana jasotzen dira:

- Herri-agintarien erantzukizuna: gizarte-zerbitzuetako sistema herri-agintarien erantzukizuna da, eta erantzukizun hori betetzeko ekimen pribatuaren laguntza izango dute. Beraz, herri-agintarien ardura da irabazteko xederik gabeko ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatzea, gizarte-zerbitzuak emateko.
- Elkartasuna: herri-agintariek elkartasuna sustatuko dute norbanakoen eta giza taldeen harremanetan, baita boluntarioei eta komunitatearen aldeko ekintzei dagokienez ere.
- Gizartearen parte-hartzea: herri-agintariak herritarrek gizarte-zerbitzuetan parte-hartze demokratikoa izan dezaten ahaleginduko dira.

4.1.2. Parte-hartze demokratikoa

Herritarren parte-hartzea kultura politiko demokratikoaren gako zibikoa da. Herrigintza ezin daiteke izan soilik alderdi politikoaren eta erakunde publikoen ardura. Guztion parte-hartzeak balio demokratikoa eranstean dio herrigintzari, betiere etika eta gizarte-ardura oinarri izanda. Parte-hartze demokratikoaren inguruko hausnarketa eta planteamenduak egungo ordezkapenezko demokrazial dituen gabezien ondorio zuzenak dira. Klase politikoarekiko mesfidantza, ustelkeria, administrazioaren herritarrekiko urruntasunak, eta abar instituzioen deslegitimazioaren atzean egongo lirarteke, baita herritarren parte-hartzerako motibazio ezarekin ere.

Parte-hartze demokratikoaren onurak, besteak beste, honako hauek direla esan dezakegu:

- gizarte-kultura bat sortzen laguntzea.
- esperientzia eta guztien gaitasunak aprobetxatzea.
- zilegitasuna sustatzea.
- gaitasun berriak garatzea.
- arazoei irtenbideak bilatzeko sormena sustatzea.
- pertsonen eta kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzea.

Parte-hartze demokratikoa herritarren parte-hartze zuzenagoatzat hartzen da; ez daude soilik alderdi politiko jakin batzuk ordezkaturak, baizik eta herritarrek zuzenean bereganatzen dute errealitatean eragina izatearen protagonismoa, haien eskubide eta erantzukizuna den heinean.

Parte-hartze demokratikorako herritarrak botoa emateaz harago doazen bideak zabalik eduki behar ditu. Egun, esaterako, Informazio eta Komunikazio Teknologien erabileraren bidez gizartearen demokratizazioa indartu daiteke, batez ere globalizazio-garai honetan. Halaber, teknologiaren garapena gizartearen egitura aldatzen ari da, eta gizarte-mugimenduen bateratzea eta lankidetzaz errazten ari da. Herritarren iritziak jasotzeaz gainera, erabakietan parte hartzerak bultzatzen du demokrazia parte-hartzaileak: parte-hartzeari esker erabakiek zilegatasun handiagoa lukete, aldebakarrekoak izanda baino, eta horiekiko erantzukizuna banatuko litzateke.

Europar parte-hartze demokratikoaren zenbait esperientzia azpimagarri izan dira:

- European Citizen´s Consultations
- Speak up Europe! (European Movement International)
- Tomorrow´s Europe (Notre Europe)
- Our message to Europe
- Radio Web Europe (CENASCA)
- Our Europe-Our debate-Our contribution

Hurbilagoko beste esperientzia batzuk ere aipatzekoak ditugu:

- Berrikuntzaren Euskal Agentzia (Innobasque)
- Eusko Ikaskuntza
- Diziplina anitzeko garapen iraunkorraren proiektu estrategikoa
- KALEIDOS.RED fundazioa
- Nazioarteko demokrazia parte-hartzailea eta Behatokia
- Parte Hartuz. Demokrazia parte-hartzailearen ikerkuntzarako eta prestakuntzarako talde finkoa da. Bertan, Euskal Herriko Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientzia, Soziologia eta Hezkuntza sailetakoa

irakasleek, ikertzaileek, bekadunek eta laguntzaileek egiten dute lan. Parte Hartuz elkartea ere bada, eta demokrazia parte-hartzaileko prozesuak eta esperientziak sustatu egiten ditu Euskal Herrian.

4.1.3. Gizartearen parte-hartzea eta gizarte-langintza

Komunitateko gizarte-langintzaren ikuspegitik, parte-hartzea biztanleriaren erantzukizuna eta eskubidea da, erabaki politikoetan eta administrazioaren planetan, programetan nahiz proiektuetan eragina izateko. Parte-hartzea dugu gizarte-langintzak atxikirik daraman printzipioa eta komunitateko gizarte-langintzaren bereizgarri nagusia, hura baita gizartearen ongizatea lortzeko ezinbesteko elementua.

Gizarte-langilearen esku-hartzea legitimatzen duen elementu bakarra inplikatuaren parte-hartzea da. Beraz, profesionalak asko zaindu beharko dute herritarren parte-hartzea; halakorik egin ezean, esku-hartze komunitarioaren dimentsioa galtzen da. Gizarte-langileak herritarrak lagundu, bideratu, informatu eta trebatu behar ditu, haien parte-hartzea erreal eta eraginkorra izan dadin. Funtzio horrek zenbait ezaugarri ditu oinarritzat: a) begirunezko jarrera; b) benetakotasuna eta gardentasuna; eta c) prestakuntza teknikoa.

Administrazio publikoek, nahi izanez gero, parte-hartzeari bultzada handia eman diezaioketela egia bada ere, kontuan izan beharko dugu parte-hartzea ezin dela inoiz inposatu, azken erabakia beti norbanakoarena izango da eta. Komunitateko kideen mobilizazioa eta parte-hartzea eraginkorra izateko, hiru baldintza bete behar dira aldi berean: a) parte hartu nahi izatea (motibazioa); b) parte hartu ahal izatea (aukera); eta c) parte hartzen jakitea (ezagutza eta trebetasuna). Hiru baldintza horiek ez dira kasu guztietan betetzen, eta, praktikan, parte hartzeari ekiten diogunean zenbait zailtasun agertu ohi dira:

- egoera pertsonal edo kolektibo ezegonkorak
- komunitateko kideen prestakuntza eta informazio gabezia

- egoeraren azterketa eta erabakiak hartzeko gaitasun falta
- prozesuaren geldotasuna
- profesionalen eta komunitateko kideen arteko ezberdintasunak, parte-hartzearen esanahiari dagokionez
- parte hartzeko baliabide eta bide eza
- komunitateko baliabideen koordinazio falta proiektu bakarra egiteko
- administrazio publikoak boterea partekatzeari uko egitea
- gizarte zibilaren beldurra administrazioarekiko menpekotasunaren aldera

4.2. Elkartegintza eta boluntarioria

4.2.1. *Elkarte* kontzeptua

Egun, elkarte kontzeptuaren esanahia zehaztea ez da samurra, batez ere komunikabideetan *elkarte*, *gizarte mugimendu*, *elkartegintza* eta *governuz kanpoko elkarte* kontzeptuak, besteak beste, bereizi gabe erabiltzen direlako. Elkarreak zentzu zabalean ulertuta, komunitateko kideek parte hartzeko moduaren adierazle gisa har ditzakegu.

Administrazio-mailetan, elkartegintzak arautze-prozesu zehatz bat izan du. Horiek aztertzean, *elkarte* kontzeptuaren beraren definizioan eta karakterizazioan zehaztasun-maila handiagoa lor dezakegu.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, elkarteen babeserako legediari dagokionez, Bazkunei buruzko 3/1988 Legea, otsailaren 12koa, aipatu behar da. Horretan, elkarte honela definitzen da: pertsona fisikoek (gutxienez hiruk) aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da. Ekimen horiek helburu jakin batzuk lortzeko egingo dira (irakaskuntzan, kulturean, artean, ongintzan, eta abar). Lege horretatik kanpo gelditzen dira: a) diruzko irabaziak lortzea eta bazkideen artean banatzea helburu dutenak; b) alderdi politikoak eta sindikatuak; elkarte erlijiosoak; eta lanbide-elkarreak.

Beraz, lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteen araupetzea du helburu. Lege horren bitartez, boluntarioen lana bera arautu eta boluntarioen ekimena babestu nahi da. Hori bermatzeaz gainera, bai boluntario eta erakundeen arteko, bai erakunde eta administrazioaren arteko harremanek nolakoak izan behar duten arautzen da. Baina lege horren ekarpen nagusia Euskal Administrazioak boluntariotza sustatzeko hartzen duen konpromisoa izango da, herritar guztiek gizartea eraikitzen jarduteko duten eskubidea azpimarratuz. Legearen zenbait alderdi nabarmentzen dira segidan:

a) Elkartegintzaren printzipioak

- Elkartek eratzea askatasunez egin behar da, aniztasunaren eta demokraziaren araberako irizpideei men eginez.
- Ez dago inor elkarte batean sartzera edo bertan egotera beharturik.
- Herri-agintaritzak ez du inor baztertuko elkarte bateko kide izateagatik, ezta faboratuko ere.
- Elkartearen eraketak eta jardunak demokratikoak izan behar dute.

b) Elkarteko partaide direnen eskubideak

- Bazkide bakoitzak eskubidea du elkarteko gainerako kideak nor diren, elkartearen kontuak nola dauden eta elkartearen funtzionamendua ezagutzeko.
- Bazkide guztiek zuzendaritza-organoetan parte hartzeko eskubidea daukate.
- Elkarteko kideek, zigorrak jar dakizkien baino lehen, entzunak izateko eskubidea daukate.
- Eskubide horiek bermatzeko, elkarteek errolda-liburua, akta-liburua eta kontu-liburua izango dituzte.

c) Elkarteko partaide direnen eginkizunak

- Elkartearen helburuak lortzeko laguntza ematea.
- Elkartearen gastuei erantzuteko bazkide-sariak ordaintzea.
- Elkartek adostutako erabakiei men egitea eta horiek betetzea.

4.2.2. Egungo elkarteen ezaugarri nagusiak

Estatuan, azken hamarkadetan elkartegintza nabarmen aldatu dela azpimarratu behar dugu. Nahitaez, diktaduratik demokraziarako trantsizioak elkartegintzaren ingurumari historiko eta politikoa markatzen du. Demokraziaren hastapenetan, 70eko eta 80ko hamarkadetan elkartegintzak indar eta pisu espezifikoak irabazi zuen. Gizartean mota askotariko elkarteak aritzen ziren lanean, askotariko helburu politiko eta sozialak lortzeko. Garaiko hirietan, garrantzia izan zuten elkarteen artean auzokideenak aipatu behar dira ezinbestean.

Geroago, batez ere 90eko hamarkadan bestelako bilakaeraz hitz egin behar dugu, elkarteen indarra gutxituz joan baitzen. Egun, elkarteez aritzean ezaugarri nagusi batzuk aurkitzen ditugu:

1. Elkarteetako kide kopurua jaitsi egin da, eta baita kide horien parte-hartze aktiboa elkarteen dinamikan ere.
2. Funtzio instrumentala (gizarte-ekintzara zuzendurikoak) duten elkarteen kopurua murriztuz joan da, funtzio adierazkorra (kideen interesak asetzerazuzendurikoak) dutenena handituz joan den bitartean. Horrek askotariko elkarte eta talde txikiak, ondo egituratuak, sortzea ahalbidetu du.
3. Elkarteetako kide izateko modua eta motibazioa aldatu da. Lehen elkarte bateko kide izatearen zentzua gizarteari zerbitzu bat eskaintzea baldin bazen, gaur, aldiz, gizartetik zerbitzu bat jasotzea litzateke.
4. Ikuspegi soziologikotik, kide gehienak erdi-mailako klase sozialekoak dira, goi-mailako ikasketak dituzte eta hirietan bizi dira.

5. Gizarte-mailan, elkarteen presentzia eta eraginkortasuna apaldu egin da. Horren arrazoi nagusia da badirela ekintza politikoa eta identitate kolektiboa garatzeko beste erakunde batzuk.
6. Elkarteen arteko harremana, koordinazioa eta elkarlana, gero eta konplexuagoa da, eta horrek zuzenean elkarteen arteko harremanik gabe funtzionatzera eramaten ditu.
7. Gizarte-boluntariorizan oinarritutako elkarteak (elkartasun-printzipioan oinarritzen direnak eta gizarteko biztanleria-sektore ahulenak laguntzea helburu nagusi dutenak, hau da, bazterkeria-eremuan mugitzen direnak) gorakada izan duten bakarrak ditugu. Gorakada horren arrazoa, administrazio publikoekin duten harreman berezia da.

4.2.3. Elkarteen eta administrazio publikoen arteko harremana

Komunitateko gizarte-langintzaren ikuspegitik, elkarteak izaera parte-hartzailea duten pertsona multzo antolatuak dira, komunitateko ongizatearen alde lan egiten dutenak. Administrazio publikoei ere elkarte mota hauek biziki bultzatzea interesatzen zaie, gizartearen konpromisoa eta erantzukizuna gizarte-beharren eta biztanleria-sektore ahulen adierazle diren heinean. Horregatik, elkartegintzari buruzko legediak boluntariorza sustatzeko eta kontrolatzeko neurriak zehazteaz gainera, administrazioarekin lanean aritzeko funtzioa arautzen du.

5. taula. Elkarteak administrazioarekin lanean aritzeko funtzioa gauzatzeko moduak

HARREMAN MOTA	DESKRIBAPENA	EZAUGARRIAK
Diru-laguntzak	-Administrazioen aldetik elkarteei diru-laguntzak eskaintzea, deialdi publikoen bitartez, haiek diseinaturiko ekintzak aurrera eraman ditzaten	- Titulartasun pribatua - Ekintzen ezegonkortasuna - Askatasun-maila altua elkartearentzat
	-Administrazioaren aldetik elkarte zehatzei hitzarmenak eskaintzea,	- Titulartasun publikoa - Ekintzen egonkortasuna

KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN OINARRI TEORIKOAK

Elkarlanerako hitzarmenak	deialdi publikorik gabe, orain arte laguntzen bitartez gauzatu dituzten proiektuak betetzen jarraitzeko	- Elkartearen askatasun-mailaren murrizketa
Kontratuak	-Administrazioen aldetik elkarte eta enpresei kontratuak eskaintzea, lehiaketa publikoen bitartez, zerbitzu publikoak kudeatzeko	- Titulartasun publikoa - Ekintzen egonkortasuna - Elkartearen askatasun-galera

Iturria: Egileek landua.

Joaquín García Roca-ren (1992) hitzetan, gure testuinguruan botere publikoek elkarte mota bakarra sustatzen dute, gizarte-boluntariorizan oinarrituriko elkarteak, hain zuzen ere. Mota horretako elkarteek ez dituzte gizarte-mugimenduek tradizionalki izan dituzten helburuak (aldarrikapena, borroka eta salaketa). Horien ordez, administrazioek beste eduki batzuei eman nahi diete lehentasuna: entretenimenduari, kultura zabaltzeari, gizarte-boluntariorizari eta gizarte-beharrak asetzen laguntzeari. Hala, elkartasuna azpimarratzen da, justizia soziala nagusitu beharrean. Victoria Camps-ek (1990) zioen moduan: “Elkartasuna susmopean dagoen bertutea da, pobreen eta zapalduen bertutea delako. Elkartasuna justiziarik ez denean agertzen da; beraz, lehenbizi justizia eta ondoren osagarri gisa —ez, ordezko gisa— elkartasuna”.

Gizarte zibilaren parte-hartzea gauzatzeko askotariko elkarteak sustatu beharra dago, ez bakarrik elkartasun-izaera daukatenak, baizik eta gizartearen aldaketa eta eraldaketa helburu dutenak ere. Beharrezkoak dira administrazioekin elkarlanean zerbitzuak kudeatzen dituzten elkarteak, baina baita administrazioei herritarren aldarrikapenak eta interesak hurbiltzen dizkietenak ere. Denak beharrezko ditugu gizarte zibila sendotzeko.

Elkarteak, pertsonak eta taldeek gizarte-mailan parte hartzeko tresnak dira, herritarren eta estatuaren arteko harremana ahalbidetzen dutenak eta gizarte-aniztasunaren adierazpen nagusi bihurtu direnak.

4.2.4. Boluntariotza eta ekimen solidarioa

Boluntariotza ez da fenomeno berria. Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabeko lan desinteresatua eta altruista gizakiarekin batera sortu zen, eta elkarren arteko laguntza komunitatearen ardatz garrantzitsu gisa garatu izan da mendez mende.

Espainiako Estatuan, boluntariotza XX. mendearen bigarren zatian garrantzi hartuz joan zen. Azken hamarkadetan fenomeno horren berritasuna beraren erregulazio juridikoan datza. Hainbat arau onartuz joan dira estatuan eta erkidegoetan, boluntariotzaren inguruko hainbat alderdi zehaztu dituztenak: kontzeptua, eskubideak, betebeharrak, erakundeekiko harremanak, eta abar. Beraz, boluntariotza, gaur egun, ez da lan desinteresatu eta altruista soilik; ondorio juridikoak ere baditu.

Boluntariotza gizartean parte hartzeko modu bat da, baina parte-hartze mota guztiak ez lirateke boluntariotzazkoak izango. BOLUNTA erakundearen arabera, boluntariotzak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Librea izan behar du, parte-hartzaileen ekimenez sortua eta kontzienteki eta borondatez gauzatua.
- Autonomoa izan behar du, botere publiko eta interes ekonomikoen mende ez dagoena.
- Bidezkoa izan behar du, giza eskubideen aldeko errespetuan oinarritua.
- Antolatua izan behar du, beste pertsona batzuekin sortua, gutxieneko egitura bat duen eta elkarlanean diharduen irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde baten esparruan.
- Solidarioa izan behar du, pertsonaren eta gizartearen aldaketaren aldekoa.
- Eskuzabala izan behar du, helburu partikularrik gabekoa eta interes orokorraren aldekoa.
- Doakoa izan behar du, ordainketarik eta kontratupeko lan-harremanik gabekoa, eta ezin da izan betebeharrak pertsonal edo juridikoen ondorioa.

- Osagarria izan behar du; ez ditu zerbitzu profesional ordainduak ordezkatu, ezta herri-erakundeek ekintza ere.

Aipatutako baldintzak kontuan izanik, ez lirateke boluntariotza-erakundeetatik kanpo une jakin batean edo noizean behin egindako borondatezko ekintzak —hau da, familia-kontuengatik, adiskidetasunagatik, on egiteagatik edo auzoko bizikidetasun onak bultzatuta egiten diren ekintzak—.

Azkenik, boluntariotzaren legedi babesleari dagokionez, Estatuko 6/1996ko Gizarte Boluntariotza arautzeko Legea, urtarrilaren 15koa, aipatu behar da. Lege honen xedeak dira: a) herritarren arteko elkartasuna bermatzea; b) borondatezko ekintzak bultzatzea eta sustatzea hainbat arlotan; eta c) boluntariotzari dagokionez, autonomia-erkidegoen eskumenak errespetatzea. Lege hori garatzeko, estatuan hainbat boluntariotza-plan egin izan dira, orain artean aldi hauetarako: 1997-2000, 2001-2004 eta 2005-2009. Euskal Autonomia Erkidegoan, 2008ko azaroaren 25ean onartu zen Boluntariotzaren II. Plana 2008-2010 urteetarako.

4.2.5. Boluntariotza eta gizarte-langintza

Boluntariotza komunitateko gizarte-langintzarentzat tresna garrantzitsua da, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuentzat hainbat ekintza egiteko edo osatzeko baliabidea, besteak beste:

- Laguntza eman etxebizitzetan edo egoitzetan.
- Belaunaldien arteko elkarbizitza-programetan parte hartu.
- Umeei, pertsona nagusiei eta ezinduei harrera egin.
- Akonpainamendu soziala egin, eta erabiltzaileak beste laguntza-sare batzuekin harremanetan jarri.
- Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainetan parte hartu.
- Gizarte-gaiei buruzko informazio eza hauteman.
- Beharizanen ikerketetan parte hartu.
- Programa terapeutikoak betetzen diren gainbegiratu.

- Arrisku-taldeak detektatu.
- Prestakuntza-programetan kolaboratu.
- Aisialdirako ekintzetan parte hartu.
- Arrisku-egoeran dauden umeentzako heziketa-ekintzetan lagundu.

Ekintza boluntarioak ugariak eta askotarikoak dira. Hala ere, ekimen boluntario motak gaika sailkatzen badira, lau arlo nagusi nabarmendu ditzakegu: a) osasuna eta bizi kalitatea; b) ingurugiroa; c) gizarte-zerbitzuak eta kultura; eta d) nazioarteko garapena eta lankidetzak.

Boluntariotza bizitza publikoan parte hartzeko modu bat da, eta tokiko demokrazia eraikitzeko eragile garrantzitsua, bizilagunen arteko elkartasuna sustatzea helburu duena. Boluntariotzaren bidez parte-hartzearen helburua ez da administrazioa heltzen ez den leku eta arazoetara heltzea. Komunitateak bere garapen propioaren protagonista izan behar du, arazoaren autogestioaren arduraduna eta bere etorkizunaren egilea. Bestalde, administrazioak ezin ditu beharrez guztiak ase, eta haiei erantzuteko boluntariotzak bere esparrua du komunitatean, batez ere harreman pertsonal eta afektiboekin loturiko beharrez ari bagara.

Euskal Herrian, historikoki arazoei aurre egin ahal izateko jendea elkartzeko ohitura handia egon da. Erakunde asko aspalditik aritu izan dira herritarrek zituzten beharrei erantzuten, komunitatean musu-truk lan egiten, administrazioak berak aurreikusi baino lehenagotik. 70eko eta 80ko hamarkadetan boluntarioen parte-hartzea asko handitu zen ikuspegi kuantitatibotik; ondorioz, elkarte berri ugari sortu ziren. Garai hartan sorturiko elkarte gehienek egun jardunean jarraitzen dute, baina haien boluntario kopurua nabarmen murriztu da. Alegia, esan daiteke boluntariotzaren aldi onak atzean gelditu direla. Norbanakoarengan zein gizartearengan dituen eragin positiboak kontuan hartuz, gizarte-langintzaren ikuspuntutik beharrezkoa dugu haren pizkundea bultzatzea.

4.3. Gizarte-mugimenduak

Gizarte Zientzietan, beste hainbatetan bezala, *gizarte-mugimendu* kontzeptuaren definizio bakarrik ez dago. Hala ere, azken hiru hamarkadetan sortu diren gizarte-mugimendu berriek fenomeno horrekiko interesa berpiztu dute, eta, beraz, hura definitzeko edo mugatzeko saiakerak areagotu egin dira. Laraña-k jasotzen duen definizioaren arabera, gizarte-mugimenduak “sinesmenak eta elkartasuna partekatzen dituzten interakzio informaleko sareak dira, eremu instituzionaletik eta gizarte-bizitzaren ohiko prozeduretatik kanpo geratzen diren ekintzarako modu gatazkatsuak garatzen dituztenak” (Laraña, 1999: 69).

Esan daiteke gizarte-mugimenduen alderdi nabarmenenak honako hauek direla:

- Denboran jarraipena: ezaugarri hau gizarte-mugimenduen eta gizarte-aldaketarako prozesu edo proiektuen arteko harremanaren ondorioa da, eta horrek bereizten ditu puntualagoak edo noizbehinkakoagoak diren ekintzetatik (grebak, manifestazioak, kale-gatazkak...).
- Gizarte-integrazioaren maila altua, beste giza talde batzuekin konparatuta; barne-kohesio handia dago gizarte-mugimenduetan: parte-hartzaileek ideia komunak eta kontzientzia kolektiboa dituzte, bai eta kidetasun-sentimendua eta beste taldeekiko elkartasun-sentimenduak ere.

Historikoki, gizarte-mugimendu garrantzitsuak garatu izan dira, egun ere badirauteanak, garrantzitsuenetarikoa langileen mugimendua. Batzuen esanetan, gizarte-mugimendu “klasiko”en eta “berri”en arteko bereizketa egin daiteke, zeren eta azken horietan ezaugarri propio batzuk identifikatzen baitituzte. Mugimendu “berri” gisa hartzen direnen artean, XX. mendeko 60ko hamarkadan finkatu zirenak daude, batez ere ekologismoa, feminismoa eta antimilitarismoa. XX. mendearen bukaeran, aldiz, beste hainbat mugimenduren indartze-prozesua ikusi dugu:

elkartasunaren aldeko mugimendua, mugimendu indigenista, alterglobalizazioaren mugimendua, eta abar.

Gizarte-mugimendu zaharren eta berrien arteko bereizketaz hausnartzea baino gehiago, atal honen helburua litzateke horietako zenbaitetara hurbiltzea.

4.3.1. Mugimendu feminista

Nahiz eta sailkapen batzuetan mugimendu feminista gizarte-mugimendu “berri”en artean kokatu, esan behar da feminismoak bi mende baino gehiagoko historia baduela, pentsamendu filosofiko-politiko eta gizarte-mugimendu gisa.

Mugimendu feministaren ardatz gisa teoria feministaren garapena dugu. Teoria feminista honela defini dezakegu: gizarte-bizitza eta giza esperientzia emakumeen ikuspuntutik deskribatzea eta azaltzea bilatzen duen ideien sistema da. Teoria feminista historikoki hegemonikoa izan den ezagutza androzentrikoari aurre egiteko sortu zen, zeinean “unibertsal”tzat hartzen den ezagutza eta giza esperientzia gizonezkoen errealitatea, diskurtsoa eta ikuspuntuaren isla besterik ez baita, emakumezkoen errealitatea, begirada eta ahotsa ikustezin bihurtuz eta mendez mende alboratuz.

Horrela, feminismoaren funtsezko galdera hau izan da: non daude emakumeak aztergai diren giza egoera edo fenomeno orotan? Eta, bigarrenik, zergatik egoera da den bezalakoa? Bi galdera horiei erantzuteko esfortzuen ondorioz, teoria eta mugimendu feministak gizarte-aldaketarako proposamen guztiz iraultzaileak egin ditu historian zehar.

Mugimendu feministaren ibilbidearen barnean, ohikoa da hirualdi bereiztea:

a) Lehen “uhina” edo aldia: feminismo ilustratua

Feminismoaren hastapenak era modernoan Frantziako Iraultzari (1789) lotuta daude. Iraultzak funtsezko helburu gisa planteatu zituen berdintasun juridikoa eta askatasun eta eskubide politikoak. Hala ere, nabaria zen lehen feminismo ilustratuak kritikatu eta salatu zuena: berdintasuna, askatasuna eta eskubideak ez zitzaizkiela emakumezkoiei aplikatzen, hau da, ez zirela hartzen herritartzat.

Garai hura izan zen emakumezkoen ahotsak era kolektibo batean adierazten hasi zeneko unea. Ahots horien artean, aipatzekoak dira Olympe de Gouges eta haren *Declaración de los derechos de la mujer y de la ciudadanía* (1791) eta Mary Wollstonecraft eta haren *Vindicación de los Derechos de la Mujer* (1792).

Esan beharra dago parte-hartze politiko nabarmena izan zuten emakumeetariko asko, horien artean aipatutakoak, erailak edo erbesteratuak izan zirela eginiko aldarrikapenengatik.

b) Bigarren “uhina” edo aldia: feminismo liberala/sufragista

Aldi hau batez ere Estatu Batuetan eta Ingalaterran kokatu ohi da, XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran. Aldarrikapen nagusi gisa, kasu honetan, emakumezkoen bozkatzeko eskubidea azpimarratu behar dugu. Horrekin batera, ardatz gisa hartzen zen hezkuntzarako eskubidea ere, horrek lotura estua baitu eskubide politikoak garatzeko ahalmenarekin, besteak beste bozkatzeko ahalmenarekin: emakumeek zenbat eta hezkuntza eta prestakuntza handiagoa izan, orduan eta zailagoa egingo zaie gizonezkoiei bozkatzeko eskubidea ukatzea.

Garai hartan, mugimendu feministaren ezaugarri garrantzitsu bat ekimen zuzena izan zen: boikotak, gose-grebak, eraikin publikoen kontrako erasoak, gobernukideen diskurtsoen etenak, eta abar. Sufragismoaren borroka zaila eta luzea izan bazen ere, Mendebaldeko ia herrialde guztietan 1930eko

hamarkadarako lortu zen emakumeen bozkatzeko eskubidearen onarpena (Suitza salbu, 1970era arte ez baitzuen onartu...).

c) Hirugarren “uhina” edo aldia: 1960ko hamarkadatik aurrera

Hirugarren aldi honen hastapenak 1960ko hamarkadako testuinguru politiko eta sozialarekin lotuta daude. Gizartea eraldatzeko ezkerretik zetozen hainbat planteamendu garatzen ari ziren une hartan, garaiko gizarte kontserbadore eta autoritarioaren aurrean alternatiba berritzaileak proposatuz.

Feminismoak gizarte horri ere kritika zorrotza egin zion: sistema patriarkalean oinarritzen den gizartea izanik, emakumeak sistema horretatik at gelditzen dira edo, barnean egonik, menpeko egoeran daude. Emakumeek gizartean jokatu ahal zuten paper bakarra eremu pribatura mugatzen zen: etxea, senarra eta umeen zaintza. Borroka, beraz, emakumeak eremu publikoan ere lekua izatera bideratu zen, bai lan-munduan edo ekonomian, bai esparru politikoan.

Aldi hartako idazlan garrantzitsu bat Betty Friedan-en *La mística de la feminidad* (1963) liburua izan zen, zeinean emakumeari gizarteak egokitutako rolaren salaketa egiten baita (emaztea, ama, etxekoandrea...) eta emakumearen autonomia aldarrikatzen baita.

4.3.2. Mugimendu ekologista

Mugimendu ekologistak hiru sustrai dauzka: kontserbazioa eta natura-baliabideen birsortzea; landaretza eta animalien zaintza, eta kutsaduraren kontrako borroka. Mugimenduaren oinarria zera da: ekosistema naturalen eta gizartearen patuak banaezinak direla, gaur egungo ekoizpen eta kontsumo ereduak hainbat arazo sozial sortzen baititu. Beraz, funtsezkoak dira parte-hartzaile soziala eta administrazioaren eta herritarren arteko harremanak.

Harreman sozial, politiko eta ekonomikoen eraldaketa sustatu beharra dago, gizartearen artean eta haien eta ekosistema naturalen artean oreka ahalbidetuko duten beste harreman batzuekin ordezkaturik. Horiek, elkertasunean, kontsumo arduratsuan, etxebizitza eta lan-baldintza duinetan eta abarretan oinarrituta egon behar lukete. Izaki bizidun guztiak ingurumen hobe batean bizitzeko eskubidea defendatzen du mugimendu ekologistak, bai eta oro har giza eredu justu bat.

Aurreko helburuak lortzeko, mugimendu ekologista hainbat ekintzaren protagonista izan da, besteak beste: ingurumenean ondorio kaltegarri atzeraezinak sortzen dituzten politika ekonomiko eta kontsumistak ekiditeko jarduerak; ingurumenari buruzko hezkuntza- eta sentsibilizazio-kanpainak; giza mobilizazioa; desobedientzia zibila; komunikabideetan parte hartzea; protestak; enpresen edo gobernuen kontrako salaketak eta beste ekimen juridiko batzuk, eta abar.

Oro har, mugimendu ekologistak nazioartean indar handia duten sareetan eta erakundeetan du isla (Greenpeace, kasu). Beste mugimendu batzuekin elkarlanean aritzeko gaitasun nabaria erakutsi du mugimendu ekologistak (bakearen aldekoa, feminista, indigena...). Izan ere, ikuspegi internazionalista defendatzeaz gain, haien filosofiaren barruan dago tokiko arazo eta arazo globalen arteko harreman estua. Horrela, tokiko arazoaren konponketa gizartearen aldaketaren helburu zabalagoan kokatu behar da. Hortik dator, finean, "globalki pentsatu, lokalki aritu" lelo historikoa.

4.3.3. Langile-mugimendua

Mugimendu horrek langileriaren eskubideen eta interesen aldeko aldarrikapenak ditu ardatz. Pertsonen lan-baldintzen hobekuntzarako antolaketa kolektiboa proposatzen du, langile-klasea kapitalaren aurrean jarrita. Enpresetan, langileria sindikatuen bidez ordezkaturik dago; beraz, mugimendu sindikalaz ere hitz egin dezakegu, langile-mugimenduaz aritzean. Hala ere, kontuan izan behar dugu hainbat sindikalismo mota garatu izan direla historian zehar: marxista, sozialdemokrata, anarkosindikalismoa, iraultzailea, korporatiboa...

Gizarte-mugimenduen artean antzinakoenetariko bat dela esan dezakegu. Industrializazio-garaiko langileek eta ondorengo belaunaldiek lan-baldintza oso gogorak jasan zituzten: 12-16 orduko lanaldiak astean sei egunez; istripuen edo gaixotasunen aurrean inolako babesik eza; miseriazko soldatak; higiene falta; haien etxebizitzaren pilaketa eta prekaritatea, eta abar. Lan-baldintza horien aldaketa eta hobekuntzan langileriak ekimen kolektiboaren beharra ezinbestekotzat hartu zuen. Bide horretan, marxismoaren teoria filosofiko-politikoak berebiziko garrantzia izan zuen, zehazki langileriaren klase-kontzientziazioan, antolaketan eta mobilizazioan. Sortu zenetik, langileriaren mugimenduak borrokarako hainbat estrategia erabili izan ditu: greba, erresistentzia zibila, desobedientzia zibila, protestak, elkarrizteka soziala, negoziazio kolektiboa, eta abar.

Espainiako Estatuaren kasuan, industrializazioaren atzerapena eta garapen ekonomikoan lurraldeen artean ziren ezberdintasun handiak direla eta, industrializazioan ezaugarri bereziak izan zituen langile-mugimenduak, horietako bat mugimendu anarkistaren garrantzia eta presentzia izanik. XX. mendearen hasierarako, langileen erakundeek beren zenbait aldarrikapen oso garrantzitsu lortu zituzten, besteak beste, 8 orduko lanaldia eta gizarte-segurantzaren sorrerako lehen urratsak. Lorpen horien gailur gisa, Lan Ministerioaren sorrera aipa daiteke (1920). Aldiz, joera hori 1921. urtetik aurrera aldatu zen, gobernuak lan-arazoak ordena publikoko auzi moduan tratatzen eta langileen edozein aldarrikapen zapaltzen hasi zenean.

Francoren diktaduraren menpe, langile-mugimenduaren egoera are latzagoa izan zen. Errepresioa gogortu egin zen; mugimendu horretako hainbat liderrek erbestara alde egin behar izan zuten, eta mugimendua klandestinitatera pasatu zen. Bitartean, erregimenak "sindikatu bertikal" zeritzon elkarteak inposatu zuen enpresetan. Hala ere, 40 urtez iraun zuen diktadurapean ere, langileen borroka espresio ugari izan zituen (grebak, gatazkak, eta abar), nahiz eta horrek askotan

langileen heriotza bera ekarri. Horren adierazgarri hurbila dugu Gasteizen, 1976ko martxoaren 3an, poliziak eraildako bost langileen kasua.

4.3.4. Mugimendu indigena

Gizarte-mugimenduen artean, beharbada mugimendu indigena da azken bi hamarkadetan indarberrituago eta jarrera propositiboago batekin azaldu dena. Izan ere, esan ohi da XX. mende bukaerako gizarte-fenomenorik garrantzitsuenetarikoa dela, Latinoamerikan behintzat, herri indioen borroka. Egun, Latinoamerikan mugimendu indigena eskualdeko izaera edo, are gehiago, kontinentala izatera heldu da.

Azken urteotan, erakunde indigenen hazkunde azkarra gertatu da herrialde askotan, planteamendu ideologiko ezberdinekin, baina elkarrengandik lotura eta koordinazio nabaria mantenduta. Mugimenduaren artikulaziorako ahalmena da, beraz, haren ezaugarrietako bat.

Mugimendu indigenaren aldarrikapen nagusiak zerak dira: herri indioen autodeterminaziorako eskubidea, eta nazio-estatuaren birdefinizioa estatu pluri-etniko eta plurikultural gisa. Mugimenduaren proiektu politikoaren barnean ere, baditugu identitate propioaren berrindartzea, tradizio eta ezagutza propioen berreskuratzea eta birbalioestea, eta baita lurraren defentsa ere.

4.3.5. Nekazari-mugimendua

Egun, nekazari-mugimenduaren ikur Nekazarien Bidea dela esan daiteke. Nekazarien Bidea nazioarteko mugimendu autonomo eta pluralista bat da, erakunde politiko, ekonomiko eta bestelakoetatik independentea dena eta Asiako, Afrikako, Amerikako eta Europako nekazari txiki eta ertainak, nekazaritzan aritzen diren langileak, emakumeak eta indigenak koordinatzen dituen. Kontinente guztietako 150 erakunde nazionalak eta eskualdekoak osatzen dute, eta 200 milioi

baseritar ordezkaten ditu. Nazioarteko Kooordinatzaile Batzordea 16 kidek osatzen dute, bi eskualde bakoitzeko, emakume bat eta gizonezko bat.

Haren helburu nagusia hauek sustatzea da: garatzeko elkartasuna; aniztasuna kide diren erakundeen artean; berdintasun-harremanak; genero-berdintasuna; justizia soziala; eta lurraren, uraren, hazien eta beste baliabide natural batzuen gaineko subiranotasuna sustatzea. Bereziki, elikadura-subiranotasunaren alde egiten da nekazari-mugimenduaren partetik, hau da, herri bakoitzak ekoizten duena eta kontsumitzen duena erabakitzeko duen eskubidearen alde. Beraz, baseritarren eskubideen defentsa egiten da, azken finean, baina baita ere kontsumitzaile ororen eskubideena.

Nekazari-mugimendua nazioartean inposatzen ari diren politika neoliberalen kontra borrokatzen da, horiek, nekazaritza iraunkor baten eredua bultzatu beharrean, finantza-merkatuen araberako nekazaritza eredua sustatzen dutelako: lurraren ustiapen intentsiboa, elikagai transgenikoen ekoiztea eta merkaturatzea, eta abar. Mugimendu horren leloa zera da: *borroka globaliza dezagun, itxaropena globaliza dezagun!*

4.3.6. Bakearen aldeko eta militarismoaren kontrako mugimendua

Bakearen aldeko nazioarteko mugimendua sortu zen elkarri osoa lotuta dauden hiru helbururekin. Lehenik eta behin, mugimendu horren ahaleginaren xedea gerrak desagerraraztea zen. Denborarekin, ordea, gerrak amaitu beharrari haiek prebenitzeko printzipioa gailenduz joan zen. Beraz, ordutik aurrera beste bi helburu nagusi bilatzen ziren: alde batetik, gerraren ustezko ekidinezintasunaren ideia amaitzea, eta, bestetik, bakearen defentsa pertsonen eta herrien garapenerako ezinbesteko aurrebaldintza gisa aurkeztea.

80ko hamarkadan izan zen bakearen aldeko mugimenduaren une historiko garrantzitsua. Garai hartan, nazioartean superpotentzia gisa lidergoa zuten

Ameriketako Estatu Batuek eta Sobietar Batasunek mundua eraman zuten *armalasterketara*; horren ondorioz, arma nuklearren ugaritzeak arriskuan ipini zuen gizadiaren iraupena bera. Horren aurrean, helburu militarren kontra eta armen bidezko seguritasunaren kontra gizarte-mobilizazio ugari egin ziren bakearen defentsan.

Mugimendu horren alkarrikapenen artean ere, funtsezko bi aipatu behar ditugu: derrigorrezko soldadutzaren desagerpena eta, horrekin lotuta, armaden beren desagerpena, eta armen komertzioaren amaiera, egungo hainbat gatazkaren atzean dagoen faktoreetako bat baita (batez ere, Mendebaldeko herrialdeen hipokresiaren erakusgarri da).

Nazioartean, bakearen aldeko eta militarismoaren kontrako mugimenduaren ekimenak gorakada nabarmena izan zuen 2003an, AEBren Irakeko inbasioa zela medio. Gerra horren kontra, milioika pertsona atera ziren kalera mundu osoan, protesta-ekintzetan parte hartzeko.

5. KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN EGUNGO ERRONKAK

Sarrera

Gizartearen eraldaketa azkarren munduan bizi gara. Eraldaketa horiek etengabeko egokitzapena eskatzen diete bai herritarrei eta baita profesionaleri ere. Atal honetan aztertuko ditugu esku-hartze komunitarioan eta komunitateko gizarte-langintzan gaur egun planteatzen ari diren erronka berriak.

Komunitateko gizarte-langintzaren bilakaera historikoan zehar hainbat erataria definitu izan da komunitatea eta esku-hartze komunitarioa, batez ere testuinguruaren eraginez. Areago, komunitateko gizarte-langintzako aditu nagusien eskutik, 1960ko hamarkadarako oinarrizko elementuetan adostasun batera heldu ziren: alde batetik, komunitatea espazio geografiko jakin batera mugatzen da (auzoa, herria, eta abar); pertsona multzo bat bertan bizi da eta interakzioak ditu; bestetik, gizarte-langilearen zeregina da komunitatea antolatzea eta ikertzea. Behin komunitatea antolaturik dagoenean, antolaketa horren bitartez programak eta proiektuak gauzatuko dira: osasun komunitarioa, gizarte-zerbitzu komunitarioak, hezkuntza-programak, eta abar. Bazterturiko komunitateetan martxan jartzen diren programek garapen ekonomikoaren helburua izango dute.

Gaur egun, adostasun horiek zenbait kasutan zaharkiturik geratu dira, testuinguruaren aldaketa dela medio. Ez diote errealitate berriaren egoera konplexuari guztiz erantzuten, eta, beraz, planteamendu teoriko-praktiko berriak eskatzen dituzte. XXI. mendean, esku-hartze komunitarioarekiko helburu eta zeregin berriak aldarrikatzen dira gizarte-langileentzat, batez ere ikuspegi eta konpromisoen aldetik. Aldarrikapen berri horiek gaur egungo errealitate sozialean oinarritzen dira, eta egungo arazo sozialak dira aldarrikapenaren gakoa.

5.1. Arestiko gizarte-bilakaera historikoa

1970eko hamarkadako krisialdiaren edo petrolioaren krisiaren ondorioz azaleratutako kapitalismo berriak ekarritako egoera sozio-ekonomiko eta kulturalaren aurrean gaude. Ezbairik gabe, azken hamarkada hauetan, politika ekonomiko neoliberalek ondorio kaltegarriak ekarri dizkiete ongizate-estatuari eta gizartearen bizi-kalitateari. Egoeraren hainbat ezaugarriren artean, nabarmendu daiteke lanaren eta kapitalaren arteko harreman berri bat hasi zela, non enpresen eta lanaren mugikortasuna handiagoa baita. Halaber, neoliberalismoaren politika ekonomikoek herrialdeen arteko desoreka nabarmendu dute, eta herri pobre eta aberatsen arteko ezberdintasunak handitu.

Oro har, esan daiteke politika horiek ezarritako egoera sozio-ekonomikoak kontraesan eta arazo sozial ugariaren eragile bilakatu direla, eta poterearen banaketan desoreka eta ezberdintasun nabariak dituzten gizarteak irudikatu dituztela. Kontraesan horiek irizpideen arabera azter ditzakegu:

- lanean segurtasunaren arabera: lan seguruak edo finkoak dituzten personak; lan ezegonkorak dituztenak; eta lan mundutik at edo baztertuak gelditzen direnak.
- lurraldearen arabera: iparra vs hegoa
- sexuaren arabera: emakumeak vs gizonak
- adinaren arabera: helduak vs gazteak
- ingurumenarekiko harremanaren arabera: natura vs gizartea
- eta abar.

Azken hamarkada hauetan, bi izan dira gizartearen eraldaketaren faktore nagusiak: globalizazioa eta pribatizazioa; eta horiek izango ditugu aztergai jarraian.

5.1.1. Globalizazioa

Globalizazioa munduko biztanle eta herri guztien arteko lotura posible egiten duen fenomeno da. Hala ere, hori baino gehiago ere bada globalizazioa:

neoliberalismoaren boterearen mende gertatzen den interkonexio ekonomiko, politiko eta kulturala. Hortaz, testuinguru horretan komunitatea mikro-errealitate bat da munduko makro-errealitatearen barnean.

Gaur egungo gizartearen ezaugarriak “arriskua” eta “mugikortasuna” dira. Merkatua globalizatzean lanpostuek iraunkortasuna galtzen dute, eta etengabeko eraldaketa bizkorretan murgildurik egotera pasatzen dira. Ondorioz, lanaren ezegonkortasuna eta langileriaren lan-harremanen haustura dator; horrenbestez, talde ahulen bazterkeria areagotu, eta mikro-sistemaren euskarri-sarea mugatzen da.

Botere politikoei dagokienez, eta gizartearen beharrei erantzuteko eremuan, “sare instituzional” deritzon kontzeptu berria dugu. Gaur egun, biztanleriak dituen beharrak konplexuagoak dira, eta botere publikoek ezin dituzte horiek ase beste botere publikoekin elkarlanean aritu gabe. Behar zehatzei erantzuteko baliabide espezializatuak ezinbestekoak dira, eta horiek gauzatzeko botere-maila guztiak inplikatu behar dira: estatukoa, erkidegokoa, aldundietakoa eta tokikoa, hain zuzen ere.

5.1.2. Pribatizazioa

1970eko hamarkadan ongizate-estatuen krisialdia hasi zen, eta, horrenbestez, gizartearen aldi berri bat sortu zen. Ideia neoliberalen arabera, gizartearen ongizatean inbertituriko diruak sistemaren krisia eragin zuen; beraz, susperraldi ekonomikorako gastu soziala murriztu behar zen. Gastu soziala murrizteko tresnarik egokiena pribatizazioa dela pentsatzen dute, eta, ondorioz, publikoari boterea kentzen zaio pribatuaren eskuetan lagatzeko: merkatua, familia eta gizarte zibila. Horrela, azken hamarkadatan hainbat motatako entitate pribatuak sortu dira arazo sozialei erantzuteko. Aniztasun horrek zerbitzu publikoak eta zerbitzu pribatuak bereiztea oztokatzen du: fundazioak, erakundeak, gobernuz kanpoko elkarteak, enpresak, eta abar.

Dena den, zenbait ikerketak adierazten duten bezala, eremu pribatuak bakarrik (merkatuak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek) ezin du gizarte-beharren asetzea bermatu. Merkatua eta elkarteak ez dira gai beharrak asetzeko ezinbestekoak diren baliabide ekonomikoak lortzeko, eta, beraz, administrazioekiko mendekotasun handia gertatzen da. Bestalde, talde edo enpresen artean elkarlana baino gehiago lehiakidetza dago; ondorioz, kasu batzuetan bikoiztasunak eta besteetan ase gabeko egoerak daude. Halaber, ez da ahaztu behar eskubideak karitate bihurtzeko arriskua.

6. taula: XXI. mendeko erronkak

ONGIZATE-ESTATUA		ASISTENTZIA-ESTATUA
<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte industrialia - Eremu publikoaren nagusitasuna: <ul style="list-style-type: none"> - Diruaren birbanaketa - Eskubide sozialen unibertsalizazioa - Estatu-nazioa - Langabezia eza - Gizarte-politikak: <ul style="list-style-type: none"> - Gastu sozialean inbertsio ekonomikoa - Helburua: ongizatea eta bizi-kalitate egokia - Ondorioak: <ul style="list-style-type: none"> - Hobekuntzak osasun-zerbitzuan, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuan - Gizarte-kohesioa 	<p style="text-align: center;">←</p> <p>Krisia</p> <p>70eko hamarkada (1973, petrolioaren krisia)</p> <p style="text-align: center;">→</p> <p>Globalizazioa Pribatizazioa</p> <p>80ko hamarkada (Berlingo harresiaren erorketa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioaren eta ezagueraren gizartea - Eremu pribatuaren nagusitasuna <ul style="list-style-type: none"> - Merkatuaren agintea ekonomian - Karitatea - Sare-gobernua / Multimaila-gobernua - Langabezia - Gizarte-politikak: <ul style="list-style-type: none"> - Gastu sozialean murrizketak - Helburua: premiazko beharren asetzea - Ondorioak: <ul style="list-style-type: none"> - Ezberdintasun ekonomiko handiak: gutxi batzuen aberastasuna, pobrezia, bazterkeria - Ustelkeria - Lanaren ezegonkortasuna - Ingurumenaren aurkako erasoak - Gizarte-kohesioaren etendura

Globalizazioa eta pribatizazioa egungo egoeraren ezaugarri nagusiak izanik, horiekin batera beste hainbat prozesu identifika daitezke; besteak beste, lokalizazioa: globalizazioarekin batera gertatzen den fenomeno da, eta, hain zuzen ere, mundu globalizatuari erantzuteko asmoz garatu izan diren tokiko identitate kulturalak ipintzen ditu erdigunean. Fenomeno hau, mundu mailan nor bere burua ezagutzeko zailtasunekin dauka zerikusia, baita pertsonen ziurtasun-beharrarekin ere.

5.2. Komunitateko gizarte-langintzaren egungo erronkak

Deskribaturiko bilakaera historikoaren eta egungo errealitatearen aurrean, gizarte-langintzari dagokio ongizate-estatua babestea, eta baita horren eraldaketa suspertzea ere. Eraldaketaren bitartez, estatuak gizarte-eskubideen bultzatzaile bilakatu behar du, ongizate-estatuko protagonistak eta parte-hartzaile nagusiak herritarrak izan daitezen. Eremu publikoaren berrindartzea eta esku-hartzea ezinbestekoa da, eremu pribatuaren nondik norakoa aztertuz eta ikuskatuz gizarte-politikak egokiro gauzatzen direla bermatzeko.

Horretarako guztirako, esku-hartze komunitarioaren erronka nagusietariko bat —ez bada nagusia— parte-hartzea sustatzea litzateke. Zentzu horretan, Barbero-k eta Cortés-ek (2007) jasotzen duten moduan, askotariko estrategiak aurrera eraman daitezke: estrategia instituzionalak edo/eta estrategia kolektiboak.

7. taula: Esku-hartzerako bi estrategien arteko alderaketa

Estrategia instituzionalak	Estrategia kolektiboak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Militanteek eta profesionalak egindako esku-hartzea, erakundeetan eta instituzioetan kokatua. 2. Profesional hauek egoeratik edo arazotik kanpo daude. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Esku-hartzeak biztanleriaren mobilizazioa bultzatzen du: pertsonak, taldeak, giza erakundeak, eta abar. 2. Esku-hartzeak biztanleriaren parte-hartze zuzena sustatzen du, batez ere haren arazoei aurre egiteko.

<p>3. Esku-hartzeak eskaintza instituzionalari eta profesionalari garrantzia ematen dio; hura aldatzen saiatzen da.</p> <p>4. Lehenetasuna eta helburuak: koordinatzea, eta programak abian jartzea eta garatzea.</p> <p>5. Esku-hartzea erakundeen gaitasunetan, zerbitzuetan eta gaitasun profesionaletan oinarritzen da.</p> <p>6. Esku-hartzearen helburua da ingurunean diren baliabideak mobilizatzea, koordinatzea eta birbideratzea.</p>	<p>3. Esku-hartzeak gizarte-eskaeraren adierazpenari ematen dio lehenetasuna, eta horren egituraketa errazten du arazoei erantzun bat eman diezaien.</p> <p>4. Helburua da taldeko eta erakunde kolektiboko proiektuak lantzea eta abian jartzea.</p> <p>5. Esku-hartzeak barne-lidergoaren mekanismoak sustatzen ditu: banakakoak, taldeak eta erakundeak.</p> <p>6. Esku-hartzeak biztanleriaren ahalmenaren mobilizazioa eta antolaketa bultzatzen ditu.</p>
--	---

Iturria: Barbero, Josep Manuel eta Cortés, Ferrán (2005): *Trabajo Comunitario, organización y desarrollo social*, Alianza, Madril.

5.2.1. Esku-hartze komunitarioaren baldintzak: ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak

Komunitateko gizarte-langintzak praktika demokratikoak indartzen ditu, boterearen birbanaketaren beharra kontuan hartzen duen heinean. Helburu horretarako, ikuspegi komunitario batekin lan egiten duen gizarte-langilearen prestakuntza ezinbestekoa izango da. Zentzu horretan, eskuratutako ezagutza, trebetasun edo gaitasun eta jarrera jakin batzuk martxan jarri beharko ditu bere esku-hartzean, prozesu horretan komunitateko gizarte-langintzaren ahalak gauzatu ahal izateko.

a) Ezagutzak

- Gizarte-langintzako kode deontologikoa ezagutzea: lanbidearen printzipio nagusiak, eskubideak, erabiltzaileekin, organismoekin eta erakundearekin duten harremana, sekretu profesionala, praktika, elkargoak, eta abar.
- Gizarte-langintzaren bilakaera historikoa ezagutzea, bai eta garatutako teknika espezifikoak eta horien bidez lortutako emaitzak ere.

- Eredu teoriko nagusiak ezagutzea, bai eta antolakuntzarako, komunikaziorako, taldeen dinamikarako eta ebaluaziorako teknikak ere.
- Esku-hartzearen fase bakoitzean diagnostikatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko teknikak ezagutzea, klase sozialari, generoari, ideologiari, etniari eta abarri lotutako aurreiritziak alde batera utzita.
- Elkartegintzaren ezagutza sakona edukitzea, komunitatearen barnean diren erakundeak identifikatuz eta haien zeregina eta eragina aztertuz.

b) Trebetasunak

- Komunitatearen eremuan behar diren gaitasunen artean, aipatzekoak dira ikerkuntza, planifikazioa, ebaluazioa, antolaketa, lidergoa, negoziazioa, dinamizazioa...
- Ikuspegi zientifikoarekin lotuta dauden gaitasunak, besteak beste errealitatearen azterketa eta datuen eskuraketa eta konparaketa. Horiek lagungarriak izango dira, komunitatearen antolaketarako estrategia politiko egokienak erabakitzekeo prozesuan.
- Egoera eta arazoan aniztasuna eta konplexutasuna kontuan hartzea, komunitatearen ahalegin kolektiboa gidatu behar baitu.
- Komunitatearen antolakuntza-dinamikan malgutasuna garatu behar du; dinamika hori biztanleriaren ezaugarrien araberako izango da.
- Komunitateko kideekin enpatia-maila egokia lortzeko ahalmena izan behar du gizarte-langileak, bere lana modu eraginkorrean egin nahi baldin badu.
- Gizarte-langileak boterearen dinamika ezagutu, eta horri aurre egiteko gaitasuna eduki behar du.
- Taldeen barnean dauden interes eta xedeen arteko adostasuna edo bateragarritasuna lortzeko ahalmena, horretarako malgutasunez jokatzuz.

c) Jarrerak

- Komunitatearen hobekuntza etengabearen aldekoa izatea, justizia soziala izanik helburu.
- Komunitatearen autodeterminazioa eta sendotzea, eta komunitateko kideen arteko lankidetzaren altruista sustatzea.
- Aniztasun sozial eta kulturalaren onuren defentsa.

5.2.2. Esku-hartze komunitarioaren oztupoak

Parte-hartzea izanik erronka nagusia, eta gizarte-langileak ikuspegi komunitario batekin lan egiteko behar diren ezagutza, trebetasun eta jarreraren jabe izanik ere, ezin da ukatu komunitateko gizarte-langintzak zailtasun edo oztupo ugariarekin topo egiten duela.

Marchioni-ren ustez, sistema demokratikoaren garapenak gizarte-zerbitzuak herritarren eskubide gisa lortzea historikoki ahalbidetu izan badu ere, ikuspegi asistentzialistak eta paternalistak gaindituz, urteak pasatu ahala lortutako hura galduz joan da, eta, horrekin batera, baita ikuspegi komunitarioa ere. Horren atzean, besteak beste, klase politikoaren epe motzerako begirada salatzen du, hau da, prestazio sozialak jotzea berehalako eskaerarako erantzun ia bakartzat.

Ondorioz, esku-hartze sozialeko politiken barruan komunitateko gizarte-langintzaren egoera balioesteko garaian, ez da harrizkoa iritzi nagusia zera izatea: esku-hartze sozialek gaur egun ez dituzten zenbait elementu garatu behar dituztela, hala nola, hurbiltasun instituzionala, gizartearen parte-hartze eta inplikazioa errazteko bideak, eta prozesuetara bideratuta dauden ikuspegiak, kontuan izanik askotan, gizarte-prozesuak ez direla errazak emaitza kuantitatibo eta zenbakizkoetan zehazteko; aldiz, honako prozesu hauek hurbilketa kualitatiboak eta ez-espezifikoak eskatzen dituzte.

Gizartearen eta ongizate-estatuaren azken hamarkadetako bilakaeraren inguruan hausnarketa eginez, agerian geratzen dira esku-hartze komunitarioaren zenbait oztopo:

a) Maila orokorrean

- Gizartearen konplexutasun gero eta ageriagoa; egungo gizarteetan intentsitate gero eta handiagorekin ari dira aldaketak gertatzen: immigrazioa; biztanleriaren zaharkitzea; emakumeen indarra subjektu autonomo gisa; aldaketak lan-merkatuan eta lan-harremanetan; informazioarako eta komunikazioarako teknologia berrien agerrera gure bizitzetako ia esparru guztietan, eta abar. Errealitate berrien aurrean gaude, eta, beraz, eskari berrien aurrean ere kokatzen gara ezinbestean.
- Kultura indibidualistaren indarra; alde batetik, kultura hau ez da gai erronkak eta arazoak adierazpen kolektiboan irakurtzeko, eta, bestetik, ez da parte-hartze kolektibora bideratzen.

b) Maila eskezifikoan

- Gizarte-zerbitzuen egungo antolaketak ez du komunitateko gizarte-langintza errazten. Alde batetik, oinarrizko gizarte-zerbitzuak hurbiltasunaren paradigma direlako erretorikak ez dakar beti sare komunitarioan benetako inplikazioa; bestalde, gizarte-langintzaren profesionalek —kasu gehienetan— lan egin ohi dute, komunitate-inplikazioaren eta gizarte-eraldaketaren logikarekin baino gehiago, bulegoko logika profesionalarekin eta baliabideak lortzeko kudeaketan. Gizarte-langileen eguneroko praxisa, beraz, ez da oso lagungarria komunitateko gizarte-langintzarako; horren adierazgarria izan daiteke, adibidez, profesionalen parte-hartze murrizta ebaluazioetan.

- Komunitateko gizarte-langintzaren beraren zenbait ezaugarrik ere bere ahulezia azaltzen lagundu dezakete: teorizazio eta sistematizazio falta — oro har, gizarte-langintzaren gabezia dena—; esku-hartze komunitarioaren eremuan aitortza duten praktika onen eta ebaluazio kualitatiboen urritasuna; eta garai batean gizarte-langintzaren lan-eremu “esklusiboa” izan zen horretan beste gizarte-zientzien eta praktika profesionalen agerrera.

8. taula: Komunitateko gizarte-langintzaren erronkak gizarte teknologiko aurreratuetan

Joerak	Erronkak	Aukerak	Komunitaterako barne-helburuak	Ekinean dagoen komunitaterako helburuak
Globalizazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Deslokalizazio industrialak - Prestakuntza-eskakizun handiagoak - Pertsona, hiri, eskualde eta herrialdeen arteko botere eta baliabideen banaketa asimetrikoa - Migrazio-fluxuak 	<ul style="list-style-type: none"> - Mugikortasuna eta lan transnazionalaren eskaintza - Beste leku batzuetako pertsonekin interakzioa izateko ahalmena - Aukeren eta tokian, eskualdean eta herrialdean izandako esperientzia arrakastatsuen konparazio-azterketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza-sistemak eta lanbiderako prestakuntza indartzea -Ingurune heterogeneo batean bizikidetzarako hezteak 	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza-sistemaren prestazioak hobetzea - Ingurumena eta inguru teknologikoaren hobekuntza erakartze-faktore gisa
Lan-merkatua	<ul style="list-style-type: none"> - Indibidualizazioa - Arautze eza - Maltrotasun gero eta handiagoa - Ekonomia informala 	<ul style="list-style-type: none"> - Ibilbide profesionalean polibalentzia handiagoa - Emakumeentzako aukera berriak 	<ul style="list-style-type: none"> - Giza kapitala eta komunitateko kideen arteko loturak ugartzea -Langabezia-egoeren aurrean laguntza- eta elkartasun-mekanismoak ezartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-baldintza duin batzuen defentsa antolatua - Kontsumitzaile gisa antolatzea, eta giza eskubideak urratuz ekoizten diren produktu eta zerbitzuen kontrako ekintza hitzartua eta presioa egitea. - Prestakuntza- eta birziklapen-ekintzen sorrera, komunitateko kideen baliabide pertsonalez baliatuz
Egoitzazko esklusioa	<ul style="list-style-type: none"> - Txabolismoa - Azpi-etxebizitza - Bazterketa - Pobrezia 	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioen berrantolaketa 	<ul style="list-style-type: none"> - Komunitate barnean loturak berrindartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Administrazioen arteko interakzioa -Komunitatean dauden baliabideak antolatzea, ura, elektrizitatea eta beste oinarritzko gai batzuk lortzearekin harremana duten arazoei aurre egiteko.

Iturria: Fernández García, Tomás eta López Peláez, Antonio (2008): *Trabajo Social comunitario: afrontando juntos los desafíos del siglo XXI*, Alianza, Madril.

5.3. Amaierako hausnarketa

Testuinguru orokorraren azken hamarkadetako eraldaketak komunitateko gizarte-langintzan izan duen eragina balioestean askotariko iritziak daude.

Malagón-en ustez, testuinguru berriak komunitarioaren berragerpena ekarri du, bai gizartean bai gizarte-langintzan, baina oraingoan helburu utilitarista darama ezkuturik: ongizate-estatuaren desagerpen osoa. Komunitatea sustatuz eremu pribatua indartu nahi dute, eta eremu publikoaren erantzukizunak murriztu (adibidez, gizarte-zerbitzuen pribatizazioa).

Marchioni-ren arabera, gizarte-zerbitzuak, gero eta gehiagotan, zabalagoak eta orokorragoak diren gizarte-egoera jakin batzuen “ondorio”ak hartu dituzten langaitzat. Horrekin batera, gero eta indibidualizatuagoa den ekintzara bideratu dira, hau da, komunitate-eremutik eta ekintza kolektibo eta prebentiboak bultzatzeko aukeratik aldendu dira. Horren guztiaren arrazoen artean, honako hauek aipa daitezke, besteak beste:

- a) Etengabeko gizarte-eskaeren gorakada, horietatik asko berriak izanik; aldiz, horiei aurre egiteko giza baliabideen hazkundea ez da parekoa izan.
- b) Gizarte-langileen paper burokratiko progresiboa; Dolors Colom Masfret-ekin batean, arazoa areagotzen da profesionalek aurrean daukaten gizarteak ere eginkizun bakar hori atxikitzen dielako.
- c) Gero eta espezifikagoak diren programen agerrera administrazioen edo beste entitate batzuen eskutik; horrek lurraldeetan koordinazio horizontalerako posibilitateak murrizten ditu.

Azkenik, Nabaskues-en ustez, globalizazioak gizarteak konplexuago bihurtzen ditu, eta, beraz, sortzen diren arazoak ere konplexuagoak izango dira. Orain arte

gizarte-arazoei erantzuteko estatua zegoen (ongizate-estatua), baina orain estatua tokiko gobernuek ordezkaturiko dute, azken horiek gaitasun handiagoa daukatelako arazo espezifiko eta pertsonalak ezagutzeko eta horiei erantzuteko orduan. Beraz, udalak hirien garapen ekonomikoaren eta gizarte-politika berritzaileen buru izango dira, biztanleriaren parte-hartzearen bitartez.

Argi dagoena zera da: errealitate global berriak biztanleriaren konpromiso handiagoa eskatzen duela gizartearekin eta administrazioarekin. Eremu publikoak eta pribatuak elkarlanari ekin behar diote, haien arteko ezberdintasunak gutxitzeko eta elkarrekin eginiko proiektuak gauzatzeko.

Bide horretan, gizarte-langintzak parte-hartzerako eta protagonismorako bideak erraztu behar dizkio gizarte zibilari: gobernuz kanpoko erakundeei (GKE), herri-elkarteei, kooperatibei, eta abarrei. Inguru komunitariorik bazterkeriaren kontra borrokatu behar da, baliabide publikoak nahiz pribatuak mobilizatuz, martxan jarritz eta dinamizatuz; hau da, esku-hartze komunitario integrala eginez. Gizarte-langileek aldaketarako eta garapenerako eragile bilakatu behar dute. Bazterkeriaren zergatietan eta ondorioetan murgilduz, jarduera berritzaileak jarri behar dituzte abian, eta parte hartzea, burujabetza eta elkartasuna bultzatu. Horrela, esku-hartzearen muina pertsonak izango dira, eta ez beharrak.

BIBLIOGRAFIA

Barbero, Josep Manuel eta Cortés, Ferrán (2005): *Trabajo Comunitario, organización y desarrollo social*, Alianza, Madril.

Barbero, Josep Manuel, Feu, Montserrat eta Vilbrod, Alain (2007): *La identidad inquieta de los trabajadores sociales*, Catalunya GIZARTE Langileen Elkargo Ofiziala, Bartzelona.

Barranco, Carmen (2004): "Los modelos de intervención en Trabajo Social desde las perspectivas paradigmáticas de las Ciencias Sociales. Introducción a los modelos críticos: énfasis en lo comunitario y en la calidad de vida", in *Servicios Sociales y Política Social*, 66. zk., 9-35.

Colom, Dolors eta Miranda, Miguel (1998): *Organizaciones de bienestar*, Mira, Zaragoza.

Cordero, Nuria eta Hernández, Pedro J. (2004): *Buscando alternativas en los movimientos sociales*, in *Gizarte-langintzako eskolen V. biltzarra: ¿Es posible otro mundo?*, Huelva.

Fernández García, Tomás eta López Peláez, Antonio (2008): *Trabajo Social comunitario: afrontando juntos los desafíos del siglo XXI*, Alianza, Madril.

García, Francisco (2001): *La intervención profesional en Trabajo Social. Supuestos prácticos I*, Malagako Gizarte Langileen Elkargo Ofiziala.

García, Joaquín (1992): *Lo público y lo privado en la acción social*, Popular, Madril.

Giner, Salvador eta Sarasa, Sebastián (1995): "Altruismo cívico y política social", in Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC) eta Universitat Pompeu Fabra, 13. zk., 16-27.

Lillo, Nieves eta Rosello, Elena (2001): *Manual para el Trabajo Social Comunitario*, Narcea, Madril.

López, Miguel, eta Chacón, Fernando (1997): "Participación ciudadana, movimientos sociales y asociacionismo" in *Intervención psicosocial y servicios sociales, un enfoque participativo*, Síntesis, Madril, 127-161.

Malagón, José Luis eta Sarasola, José Luis (2006): *Fundamentos del Trabajo Social Comunitario*, Aconcagua, Sevilla.

Marchioni, Marco:

-(1969): *Comunidad y desarrollo*, Nova Terra, Bartzelona.

-(1989): *Planificación social y organización de la comunidad: alternativas avanzadas a la crisis*, Popular, Madrid.

-(1992): *La audición: un método de investigación participativa comunitaria. Teoría, metodología y práctica*, Benchomo, La Laguna (Tenerife).

-(1994): *La utopía posible. La intervención comunitaria en las nuevas condiciones sociales*, Benchomo, La Laguna (Tenerife).

-(1999): *Comunidad, participación y desarrollo. Teoría, metodología y práctica de la intervención comunitaria*, Popular, Madrid.

-(2001): *Comunidad y cambio social. Teoría y praxis de la acción comunitaria*, Popular, Madrid.

-(2004): *La acción social en y con la comunidad*, Certeza, Zaragoza.

Moix, Manuel (1991): *Introducción al Trabajo Social*, Trivium, Madrid.

Morquecho, J. (1999): *Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión*, Ararteko.

Navarro, Silvia (2004): *Redes sociales y construcción comunitaria. Creando (con)textos para una acción social ecológica*, CCS, Madrid.

Olza, Miguel (1996): "Trabajar en la comunidad", in Zenbait egile: *Psicología Social y Trabajo Social*, McGraw-Hill, Madrid, 531-548.

Paulo, Laura (2003): "Trabajar con la participación y con la no participación", in *Revista de treball social*, 172. zk., 41-62.

Pindado, Fernando (2005): "Gobierno local y participación ciudadana", in Martí, Joel, Pascual Jordi eta Rebollo, Óscar (koord.): *Participación y desarrollo comunitario en medio urbano, experiencias y reflexiones*, Madrid, IEPALA, 17-39.

Raya, Esther (2002): "La política social en el País Vasco en las décadas de los años ochenta y noventa", in *Políticas sociales y ciudadanía*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 197-232.

Robertis, Cristina eta Pascal, Henri (1994): *La intervención colectiva en Trabajo Social. La acción con grupos y comunidades*, El Ateneo, Buenos Aires.

Trigueros, Isabel (1991): *Manual de prácticas en Trabajo Social Comunitario en el movimiento ciudadano*, Siglo XXI, Madrid.

Villalba, Cristina (2000): "Metodología y técnicas avanzadas en Trabajo Social", *Gizarte-langintzaren IX. Biltzarra*, Santiago.

Zubero, Imanol (2003): "Voluntariado y acción colectiva", in Montagut, Teresa: *Voluntariado: la lógica de la ciudadanía*, Ariel, Barcelona, 33-50.